

Año LV. urtea

136 - 2023

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Egileen eta arazleen syntaxia jite adjektiboen argitan

Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 136. zk. - 2023

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro	287
Hizkuntzekiko Irakaskuntza Sentsiblearen gaineko usteak: EAEko LHko irakaslegaien iritziak aztergai Artzai Gaspar, Oihane Galdos, Eider Saragueta, Karin van der Worp, Leire Ituiño-Aguirre	321
William Wordsworth's <i>Sonnets Dedicated to Liberty</i>: the poems about Basque mountaineers Haritz Monreal Zarraonandia	347
Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik Amaia Serrano Mariezkurrena	371
La notación de onomástica no latina en la documentación legerense: aspectos sociolingüísticos Guadalupe Lopetegui Semperena	397
Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa Naroa Zubillaga Gomez	421
Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980) Josu Martinez Martinez	437
Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna Miren Artetxe Sarasola	457

Sumario / Aurkibidea

VARIA

La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vascoología [Dosier] Joaquín Gorrochategui, Ekaitz Santazilia (eds.)	485
La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos Joaquín Gorrochategui, Javier Velaza	491
Una mano cortada Francisco Beltrán Lloris	503
La inscripción vascónica de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica Joan Ferrer i Jané	515
Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi Eduardo Orduña Aznar	539
Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi Iván Igartua	551
Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño	565
An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi Julen Manterola, Céline Mounole	583
Zorioneko y zorion: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca Joseba A. Lakarra	597
¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora <i>directa</i> del euskera histórico? Mikel Martínez-Areta	617
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	639

Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan

La sintaxis de agentes y causas a la luz de adjetivos disposicionales

The syntax of agents and causers in light of dispositional adjectives

Ane Berro Urrizelki
Deustuko Unibertsitatea
ane.berro@deusto.es
<https://orcid.org/0000-0002-6818-506X>

Leire Sánchez-Dorronsoro
Deustuko Unibertsitatea
leire.sanchez@opendeusto.es
<https://orcid.org/0000-0001-9464-8761>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv136.1>

Jasotze data: 2022/11/04. Behin-behineko onartze data: 2023/01/14. Behin betiko onartze data: 2023/02/28.

LABURPENA

Lan honetan *-garri* eta *-kor* atzizkien bitartez eraikitzen diren jite adjektiboak arakatu ditugu. Adjektibo horiek mendeko aditzak adierazten duen gertaerarekin edo egoerarekin lotutako irakurketa potentziala, ebaluatiboa edo joerazkoa dute, eta, adjektiboaren arabera, balio aktiboa, pasiboa ala jasaileuna izan dezakete. Lan honetan proposatuko dugu jite adjektiboen interpretazioa adjektiboak mendean hartzen duen egitura morfosintaktikoaren ondorioa dela; zehazki, Boz buruaren, aditz txikiaren eta buru horiei lotutako argumentuen arabera (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013). Azterketa honetatik abiatuta, proposatuko dugu *egile* eta *arazle* argumentuak gunes berdinetan sartzen direla sintaxian.

Gako hitzak: jite adjektiboak; eratorpen morfologia; argumentu egitura; egileak; arazleak.

RESUMEN

En este artículo exploramos los adjetivos disposicionales contruidos con los sufijos *-garri* y *-kor*. Estos adjetivos tienen una lectura modal potencial, evaluativa o de tendencia relacionada con el evento o estado expresado por el verbo subyacente, y su valor puede ser activo, pasivo o de paciente. Proponemos que la interpretación de estos adjetivos es resultado de su estructura morfosintáctica; en concreto, de las proyecciones de los núcleos Voz, verbo pequeño y los argumentos relacionados con ellos (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013). Partiendo de este análisis, planteamos que los argumentos *agente* y *causa* se incorporan en posiciones sintácticas diferentes.

Palabras clave: adjetivos disposicionales; morfología derivativa; estructura argumental; agentes; causas.

ABSTRACT

This paper explores dispositional adjectives formed with the suffixes *-garri* and *-kor*. Those adjectives can have either a potential, evaluative or easiness modal interpretation related to the event or state expressed by the embedded verb, and their value can be active, passive or patientive. In this paper we propose that these readings are the consequence of the morphosyntactic structure underneath the adjective. Particularly, we argue they are derived from the projection of Voice, little *v* and the arguments associated with those heads (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013). On the basis of this analysis, we will claim that agents and causers are introduced at different syntactic positions.

Keywords: dispositional adjectives; derivational morphology; argument structure; agents; causers.

1. SARRERA. 2. JITE ADJEKTIBOEN SAILKAPENA. 2.1. Balioaren arabera. 2.2. Irakurketa modalaren arabera. 3. JITE ADJEKTIBOEN MODIFIKAZIOA: EGILE INPLIZITUA ETA GERTAERA INTERPRETAZIOA. 4. JITE ADJEKTIBO POTENTZIALAK EUSKARAZ. 4.1. -*Garri* adjektiboak eta izenak: balioa eta irakurketa modala. 4.2. -*Garri* potentzialaren egile inplizitua eta gertaera interpretazioa. 4.3. -*Garri* potentzialaren proposamen bat. 5. JITE ADJEKTIBO AKTIBOAK. 6. GAIK, ARAZLEAK ETA EGILEAK. 7. -GARRI ADJEKTIBOAK ETA EGITURA INPERTSONALA. 8. -KOR ADJEKTIBOAK ETA EGILE/ARAZLE DESBERDINTASUNA. 9. ONDORIOAK. 10. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Aditzetatik eratorritako adjektiboak bi taldetan sailkatzen dira (Fábregas & Scalise, 2012, 93.-94. or.): partizipioak (1) eta jite adjektiboak (2). Batetik, partizipioek aditzak adierazten duen gertaeraren ondoko ala barruko egoerari erreferentzia egiten diote –ingelesez *-ed* eta *-ing* atzizkiak daramatzate–. Bestalde, jite adjektiboek (2) aditzak adierazten duen gertaerari edo egoerari lotutako ezaugarri bat adierazten dute modalitate jakin batekin (ingelesez *-able* adjektiboak)¹.

(1) Partizipioak ingelesez: *worried, tired, destroyed, growing, printing*.

(2) Jite adjektiboak ingelesez: *translatable, lovable, irritable*.

Lan honetan (2)-n zerrendatutako adjektiboen euskal ordainak aztertuko ditugu; zehazki, euskaraz *-garri* eta *-kor* atzizkien bitartez eraikitzen direnak (Artiagoitia, 1995, 2003; Azkarate, 1990; Gonzalvo, 2018; Oihartzabal, 2003a; Sánchez-Dorransoro, 2022; Sánchez-Dorransoro et al., 2022; Zabala, 1999). Ikusiko dugu, alde batetik, euskal jite adjektiboek zenbait interpretazio modal izan dezaketela, hots, irakurketa potentziala (i.e. *x daitekeena*), ebaluatiboa (*x izatea merezi duena*) edo joerazkoa (*x-tzeko joera duena*). Bestalde, adjektiboen balioa aktiboa, pasiboa edo jasaduna

1 (2) taldeko adjektiboei *jite adjektibo (dispositional adjectives* ingelesez) (Oltra-Massuet, 2013) edo *adjektibo modal* (Fábregas & Scalise, 2012) esan zaie literaturan. Guk lehenengo aukerari eutsiko diogu, ulermenaren errazte aldera, nahiz eta ohartzen garen adjektiboak irakurketa modal bat baino gehiago izan dezaketela.

izan daiteke. Balio aktiboan, adjektiboaren subjektua mendeko aditzaren subjektua-ekin dago indizekidetuta (e.g. *beldurgarri*, hots, ‘beldurra eragiten duena’). Balio pasiboan, adjektiboaren subjektua eta aditzaren osagarria erreferentziakideak dira (e.g. *irakurgarri*, ‘irakur daitekeena’). Azkenik, balio jasailean, adjektiboaren subjektua aditzaren argumentu bakarrarekin dago indizekidetuta (e.g. *erorkor*, ‘erortzeko joera duena’). Interpretazio horiek guztiak arakatzeko, adjektiboak mendean duen aditzaren argumentu egitura aztertuko dugu. Oltra-Massuetek (2013) eta Alexiadouk (2018) hartutako bideari jarraituz, proposatuko dugu *-garri* eta *-kor* adjektiboaren interpretazioak adjektiboaren barruan hartzen duten egitura morfosintaxikoari zor zaizkiola. Lan honetan hipotesi hau proposatuko dugu: jite adjektiboaren subjektua aSren barruan sintaktikoki indarrean dagoen argumentu batekin indizekidetuko da; zehazki, aSren espezifikatzailean (edo, espezifikatzaile ezean, espezifikatzaile hurbilen) dagoen argumentu batekin. Hipotesi horrekin azaldu ahal izango dugu zer-gatik batzuetan *-garri* adjektiboek balio pasiboa duten eta beste batzuetan, aldiz, aktiboa. Gainera, argituko dugu *-kor* adjektiboek subjektutzat egile bat izateko duten ezintasuna.

-Garri adjektiboek balio pasiboa dutenean, batzuek irakurketa potentziala dute (e.g. *irakurgarri*), eta beste batzuek ebaluatiboa (e.g. *maitagarri*). Oltra-Massuetek (2013) ingeleserako, gaztelaniarako eta katalanerako iradoki duen bezala, proposatuko dugu *-garriren* interpretazio potentzian BozS eta aS daudela sintaktikoki islatu-rik. Alabaina, goian aipatu dugun bezala, euskaraz badira bestelako jite adjektiboak: *-garri* adjektibo aktiboak eta *-kor* adjektibo jasaileak. Gure proposamenaren arabera, *-garri* adjektibo aktiboetan aS bakarrik islatzen da, eta, horri dagokionez, *-kor* adjektibo jasaileak bezalakoak dira. Beraz, *-garri* adjektibo aktiboetan eta *-kor* adjektiboetan, Boz burua ez da islatuko. Bada, *-garri* adjektibo aktiboetan eta *-kor* adjektiboetan arteko diferentziak argumentu kopuruarekin du zerikusia: *-kor* adjektiboetan argumentu bakarra dago sintaktikoki indarrean –gaia–; *-garri* adjektibo aktiboetan, aldiz, bi argumentu daude –arazlea eta gaia–.

Azterketa honen bitartez, eratorpen morfologiaren sintaxia arakatzear gain, aditzen argumentu egituraren hainbat alderditan sakonduko dugu. Aditz moten eta, batez ere, subjektu moten arteko bereizketa egingo dugu; ikusiko dugu egileek eta arazleek ez dutela banaketa sintaktiko bera. Zehazki, erakutsiko dugunez, jite adjektiboaren subjektua barruko aditzaren gaiarekin zein arazlearekin indizekidetu daiteke; ez, ordea, egilearekin. Bereizketa hori oso esanguratsua da sintaxiaren teoriarako; izan ere, gramatika sortzailearen barruan egiten diren lan gehienetan ontzat hartzen da kanpo argumentua –egilea, arazlea edo dena delakoa– funtzio buru berak –Bozak (Kratzer, 1994, 1996) zein *a* txikiak (Chomsky, 1986)– sartzen duela egituran. Levin eta Rappaport Hovavek (1995), esate baterako, beren ikuspuntu lexiko-semantikoan, egileak, iturburu eta arazleak batera sailkatu dituzte *berehalako kausa* (ingelesez *immediate cause*) nozioaren barruan, eta rol hori duten argumentuak ingelesez subjektu bihurtzen dituen erregela bat dagoela proposatu dute. Lan honetan, aditzen subjektu izanagatik ere, egileak eta arazleak gune sintaktiko desberdinetan sartzen direla proposatuko dugu eta hipotesi horren aldeko ebidentzia emango dugu, jite adjektiboaren azterketan oinarrituz.

Lan honen ekarpen nagusiak, beraz, bi dira. Batetik, euskarazko jite adjektiboen eraikuntza murrizten duten baldintza batzuk ekarriko ditugu argitara. Horri dagokionez, lanak Oltra-Massuetek (2013) eta Alexiadouk (2018) esandakoarekin bat egingo du neurri batean. Bestalde, arazleak eta egileak sintaktikoki desberdinak direla aldarrikatzen duen literaturari ekarpena egiten dio. Aditz arazleen azterketan hainbat lanek iradoki dute arazleak eta egileak ez direla sintaxian berdin txertatzen (Alexiadou, 2014; Alexiadou & Anagnostopoulou, 2020; Alexiadou et al., 2006). Hipotesi horren aldeko ebidentzia dakar jite adjektiboen azterketak; izan ere, goian esan dugun bezala, adjektiboen subjektua gaiarekin eta arazlearekin indizekidetu daiteke, baina ez egilearekin. Jokabide hori aztergai ditugun bi adjektibo atzizkidunetan atzematen da, bai *-garri* adjektiboetan, bai *-kor* adjektiboetan. Egileak eta arazleak berdin-berdinak balira sintaxiari dagokionez, eta aSren interpretazioak bakarrik bereiziko balitu (esate baterako, Woodek [2012, 2015] eta Berrok [2015] proposatu zuten bezala), ezingo genuke azaldu nola horren sistematikoki bereizten dituen biak eratorpen morfologiak. Gure hipotesia hau da: egileak BozSaren geruzan txertatzen dira eta arazle hutsak, hots, arazle ez-egileak eta gehienetan ez-bizidunak, aSren geruzan. Beste lan batzuen ildotik, argi bereiziko ditugu biak semantikoki. Egileak bizidunak dira eta gertaeraren gaineko borondatea eta kontrola dute (Levin & Rappaport Hovav, 2005); arazleak, berriz, gertaeraren kausa dira, baina ez dute borondaterik ez eta gertaeraren gaineko kontrolik ere. Arazleak aSren semantikari modu hertsia goan lotzen zaizkio eta aSren interpretazioaren mendekoak dira (Alexiadou, 2014; Schäfer, 2012). Ondorioz, murriztapen gehiago dituzte, hots, aditzak adierazten duen gertaeraren arabera, mota bateko ala besteko arazlea izango dugu.

Egileak eta arazleak bi gune sintaktikotan sartzen direlako hipotesiarekin, bai eta jite adjektiboen inguruan egindako beste hipotesiarekin ere, azaldu ahal izango dugu zergatik diren gai *-garri* eta *-kor* adjektiboak gaiaren rola xurgatzeko (eta *-garriren* kasuan, baita arazlearena ere), baina ez egilearena.

Lanak honako egitura hau dauka: bigarren atalean, jite adjektiboen sailkapena aurkeztuko dugu; batetik, balioari erreparatuko diogu, eta, bestetik, irakurketa modalari. Hirugarren atalean, jite adjektibo batzuek duten egile inplizitua eta gertaera interpretazioa aztertuko dugu. Irakurketa horiek jite adjektibo potentzialetan bakarrik aurkituko ditugu. Laugarren atalean, *-garri* adjektibo potentzialen analisia azalduko dugu, duten jokabide sintaktikoan oinarrituta. Bosgarren atala *-garri* adjektibo aktiboen azterketari eskainiko diogu eta proposatuko dugu, *-garri* potentzialetan ez bezala, *-garri* aktiboetan aS dela aditzezko islapenik gorena. Seigarren atalean, gaia, egilea eta arazlea rol tematikoa duten argumentuen banaketa sintaktikoaren gaineko gogoeta egingo dugu, eta zenbait lani jarraikiz, proposatuko dugu arazleak aSren espezifikatzailean sartzen direla sintaxian eta egileak, aldiz, BozSren espezifikatzailean. Zazpigarren atalean, *-garri* adjektiboetan agertzen diren aditzek eta subjektuek egitura inpersonalean duten banaketa aztertuko dugu. Zortzigarrenean, *-kor* adjektiboetan sakonduko dugu; azkenik, bederatzigarren atalean, lanaren ondorio nagusiak azalduko ditugu.

2. JITE ADJEKTIBOEN SAILKAPENA

Jite adjektiboen interpretazioa aldagai baten baino gehiagoren araberakoa da. Atal honetan, jite adjektiboek izan ditzaketen balioak aztertuko ditugu lehenik (2.1. atala), eta irakurketa modaletan sakonduko dugu bigarrenik (2.2. atala).

2.1. Balioaren arabera

Adjektiboaren subjektua aditzaren osagarriarekin edo subjektuarekin parekatzen den, adjektiboaren balioa pasiboa ala aktiboa dela esango dugu, hurrenez hurren (Artiagoitia, 1995, 2003). Esate baterako, *-garri* adjektiboek bata zein bestea izan dezaketek barruan duten aditzaren argumentu egituraren arabera (Artiagoitia, 1995, 2003; Azkarate, 1990; Azkue, 1925; Villasante, 1974).

- | | |
|--|---------|
| (3) Nik zure katua maite dut. > Zure katua maitagarria da. | Pasiboa |
| (4) Egoerak (ni) kezkatzen nau. > Egoera kezkarria da. | Aktiboa |

(3) eta (4) adibideetan *maite izan* eta *kezkatu* aditz psikologikoak erabili ditugu. Biak aditz psikologikoak izanik ere, desberdinak dira argumentu egiturari dagokionez. Belletik eta Rizzik (1988, 291.-292. or.) hiru taldetan sailkatu zituzten horrelako aditzak. Sailkapen horretan oinarrituz, Fernándezek, Zúñigak eta Berrok (2020, 649. or.) euskararako banaketa hau egin zuten (ikus, halaber, Etxepare, 2003, eta Fernández & Ortiz de Urbina, 2010).

- (5) I. taldeko aditz psikologikoak (*temere* italieraz):
Amak (ERG) armiarmak (ABS) **gorrotatzen** ditu.
- (6) II. taldeko aditz psikologikoak (*preoccupare* italieraz):
Ekaitzak (ERG) ni (ABS) **beldurtzen** nau.
- (7) III. taldeko aditz psikologikoak (*piacere* italieraz):
Niri (DAT) istorio dibertigarriak (ABS) **gustatzen** zaizkit.

I. taldeko aditz psikologikoetan, subjektua esperimantatzailea da, eta osagarria estimulua. II. taldekoetan, subjektua estimulua da –batzuetan arazletzat har daitekeena–, eta osagarria esperimantatzailea. Azkenik, III. taldekoetan, subjektua esperimantatzailea da, eta osagarria estimulua.

(3) adibidean agertzen den aditza *–maite izan–* I. motakoa da, hots, subjektua esperimantatzailea dute. Euskaraz, esperimantatzaileak ergatibo kasua darama *–nik–*, eta egoera psikologikoa sorrarazi duen estimuluak *–zure katua–* absolutiboa. (4) adibideko aditza *–kezkatu–*, ordea, II. motako aditz psikologikoa da; I. motakoetan ez bezala, subjektua ez da esperimantatzailea, ezpada egoera psikologikoa sorrarazten duen estimulua edo arazlea *–egoerak–*. Esperimantatzailea absolutiboz markatutako osagarri zuzena da *–ni–*. Ikus daitekeenez, *-garri* adjektiboek balio desberdinak dituzte horrelakoetan. Subjektua esperimantatzailea duten aditzen kasuan (I. motakoetan), *-garrrik* osagarri zuzenaren rol tematikoa xurgatu du, hots, gaiarena, eta, ondorioz, haren balioa *pasiboa* dela esaten dugu (3): katua maitatua da edo maitatua izatea merezi du.

Bestalde, subjektua arazlea duen aditz psikologikoan, *-garri* adjektiboak subjektuaren rola xurgatu du, eta, hortaz, balio aktiboa dauka (4): egoerak kezka eragiten dio norbaiti (ikus 1. taula eta Sánchez-Dorrnsoro et al., 2022, aditz psikologikoez jite adjektiboetan duten banaketarako).

1. taula. I. eta II. taldeko aditz psikologikoak euskarazko *-garri* adjektiboetan

Aditz psikologikoak	<i>-garri</i> adjektiboak	
	Balioa	Adibideak
I. taldea Esperimentatzailea _{ERG} - Estimulua _{ABS}	Pasiboa	<i>maitagarria</i>
II. taldea Estimulu arazlea _{ERG} - Esperimentatzailea _{ABS}	Aktiboa	<i>kezkarria</i>

(3) eta (4) adibideetan erakutsi ditugun aditzak iragankorrak dira, eta *-garri* adjektiboak subjektuaren edo osagarri zuzenaren rola xurgatu du. Bestalde, aditz iragan-gaitzak ere jite adjektiboetan ager litezke, baina ez *-garri* adjektiboetan, ezpada *-kor* adjektiboetan². Oihartzabalek (2003a) erakutsi duen bezala (ikus, halaber, Gonzalvo, 2018; Zabala, 1999), *-kor* adjektiboez aditz iragan-gaitzak izan ohi dituzte oinarrian³, eta aditz horien argumentu bakarrak gaiaren rol tematikoa izaten du oro har. Guk lan honetan horrelako adjektiboei *jasailedun* (ingelesez *patientive*) esango diegu, eta, horrela, (3)-ko adjektibo pasiboetatik bereiziko ditugu (Sánchez-Dorrnsoro, 2022).

(8) Pago-hostoak erori egiten dira. > Pago-hostoak erorkorrak dira. Jasaileguna

2 Ingelesa bezalako hizkuntzetan jite adjektiboak aditz iragankorretatik bakarrik sor litezke. Ondorioz, horrelako kontrasteak sortzen dira (Oltra-Massuet, 2013, 87. or.).

- (i) a. #The pond is freezable.
‘Urmaela izoztu daiteke’.
b. The food is freezable.
‘Janaria izoztu daiteke’.

(ia) ez da gramatikala, *freeze* ‘izoztu’ ez bada aditz iragankor moduan interpretatzen. (ia) adibidearen subjektua urmaela da, eta normalean urmaelak ez ditu entitate batek izozten. Ondorioz, zaila egiten da ‘urmaela izoztu’ predikatua iragankortzat hartzea. Testuinguru horretan, *freeze* barrutik arazitako gertakaria da (Levin & Rappaport Hovav, 1995) eta halakoak oso gutxitan agertzen dira egitura iragankorretan. Barrutik arazitako aditzak egitura iragankorretan agertzen badira, subjektua arazlea izan daiteke bakarrik (ez egilea) eta ia beti ez-gizakia da, eta indar naturalei lotua (Alexiadou, 2014; McKoon & Macfarland, 2000; Wright, 2001, 2002) (ikus 6. atala); esate baterako, hotza edo tenperatura baxua.

3 Lan honetatik kanpo utziko ditugu Oihartzabalek (2003a), Gonzalvok (2018) eta Sánchez-Dorrnsorok (2022) aipatzen dituzten bestelako *-kor* adjektibo batzuk, zeinak aditz iragankorretatik eratortzen diren: *maitekor*, *ahazkor*, *sineskor*, *emankor* eta abar. Aditz iragankorrak izan arren, uste dugu horrelako *-kor* adjektiboetan barne argumentua ez dagoela sintaktikoki indarrean, Oihartzabalek (2003a) proposatu zutenaren ildotik. Hortaz, *-garri* aktiboak ez bezalakoak dira. Nahiz eta hemen ez ditugun horrelako adjektiboak aztertuko, merezi du aipatzea adjektibo horien jokabideak ere bat egiten duela lan honetan aurkezten ari garen analisiarekin: hain zuzen, adjektibo horietan ere adjektiboak ez du xurgatzen egilearen rol tematikoa.

Esan beharra dago jite adjektiboen azterketek batez ere balio pasiboko adjektiboetan jarri dutela jomuga (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013); esate baterako, *-ble* atzizkiaren bitartez ingelesez, gaztelaniaz eta katalanez sortutako adjektiboetan; izan ere, *-ble* adjektiboak nagusiki pasiboak besterik ezin dira izan (Fábregas & Scalise, 2012, 94. or.). Euskaraz, jite adjektibo aktiboak eta jasaileak ere badaude. Lan honetan balio horietako jite adjektiboak ere azalduko ditugu eta, neurri horretan, jite adjektiboen gaineko literaturari ekarpena egingo diogu.

2.2. Irakurketa modalaren arabera

Adjektiboen balioaz gain, beste aldagai batek ere adjektiboen interpretazioan eragiten du: irakurketa modalak. Hainbat lanetan jaso den bezala, oinarrian hartzen duen aditzaren arabera, adjektiboaren irakurketa edo indar modala hiru motatakoa izan daiteke (Alexiadou, 2018; Sánchez-Dorronsoro, 2022): ez-potentziala edo ebaluatiboa⁴ (9), potentziala (10) eta joerazkoa (11) –Alexiadouren (2018) hitzetan, *erraztasun semantikoa* litzateke azken hori–. Interpretazio horien ingelesezko adibide bana ikus daitezke jarraian.

(9) John admires Ann. > Ann is admirable.	Ebaluatiboa
(10) John can translate the poem. > The poem is translatable.	Potentziala
(11) John irritates Ann. > Ann is irritable.	Joerazkoa

Irakurketa ebaluatiboan, hiztunaren ebaluazio subjektiboa adierazten da; alegia, (9) ereduko adibide batean, Ann miresgarria da Johnen iritziz. Interpretazio honetan, beraz, Annek miresmena eragiten du –Johnen ikuspuntutik bederen–. Horregatik esaten da horrelakoetan miresmen egoera indarrean dagoela.


Interpretazio potentziala (10) eta joerazkoa (11) oso bestelakoak dira. Bi interpretazio horietan, adjektiboak ez du egoera bat indarrean dagoela adierazten. Hau da, *translatable* ‘itzulgarri’ edo *irritable* ‘suminkor’ adjektiboek ez dute zerbait itzulita dagoela edo norbait suminduta dagoela adierazten, ezpada zerbait itzul daitekeela eta norbaitek sumintzeko joera daukala, hurrenez hurren. Lan honetan irakurketa modal bi horiek dauzkaten aditzak eta jite adjektiboak aztertuko ditugu, egileen eta arazleen arteko bereizketa aztertzeko argigarrienak direlakoan.

Oltra-Massuetek (2013) *-ble* adjektibo mota bakoitza egitura morfosintaktiko batekin lotu du. Haren arabera, irakurketa potentziala duenean, *-ble* atzizkiak azpian aditz egitura duen adjektibo buru bat azaleratzen du. Hau da, irakurketa potentzian adjektiboa aditz batetik eratorria da. Izaera hori duen atzizkiari *goi-ble* edo *high-ble*

4 Oltra-Massuetek (2013) bi interpretazio bereizten ditu; hots, potentziala eta ez-potentziala (ebaluatiboa eta beste). Guk, Alexiadouekin (2018) bat etorri, hiru bereiziko ditugu; alegia, potentziala, ebaluatiboa –zeinak Oltra-Massueten banaketarekin bat datozen nagusiki– eta erraztasuna adierazten duena; hots, joerazkoa.

esaten dio Ultra-Massuetek (2013). Behean Alexiadouk (2018) era horretako adjektibo-
boei emandako zuhaitza dugu.

(12) *Goi-ble*



Ikus daitekeenez, irakurketa potentzialean interpretazio gertaeraduna eta egileduna bideratzen duten funtzio buruak islatzen dira; alegia, aS eta BozS. Geruza horiei esker, entitate zehaztugabe batek gertaera aurrera eraman dezakeela eta gertaera horren emaitza egoera lor daitekeela ulertzen dugu. Asp buruak egoeraren irakurketa sortzen du, zeina aSren gainean, gertaera baten emaitza egoera bihurtzen den (Embick, 2004). Moduak, bere aldetik, irakurketa modala txertatuko luke, generikoa, eta AspPen eta aSren gainean dagoen neurrian, interpretazio potentziala.

Goi-ble atzizkia *behe-ble* (edo *low-ble*) delakotik bereizten du Ultra-Massuetek (2013). *Behe-ble* atzizkidun adjektiboek interpretazioa ez-potentziala (ebaluatiboa eta beste) izaten dute, eta atzizkia egitura sintaktikoaren beheko aldean gaineratzen dela proposatu du, erroa aditz bilakatu baino lehenago. Beraz, jite adjektibo potentzialen eta ebaluatiboen arteko bereizketa egituratik letorke, Ultra-Massueten (2013) eta Alexiadouren (2018) arabera: adjektibo potentzialak aditzetikoak dira; ebaluatiboak, aldiz, zuzenean errotik eratorriak. Guk dakigula, euskaraz ez da *-garri* adjektiboetan halako bereizketarik egin. Artiagoitiak (1995, 2003), adibidez, *-garri* adjektibo guztiak aditzetatik eratorriak direla aldarrikatu du. Lan honetan irakurketa potentzialean eta joerazkoan bakarrik sakonduko dugu, eta, hortaz, ez dugu eztabaidatuko bestelako jite adjektiboak aditzetikoak ote diren ala ez.

3. JITE ADJEKTIBOEN MODIFIKAZIOA: EGILE INPLIZITUA ETA GERTAERA INTERPRETAZIOA

Jite adjektiboak bereizteko, badira irakurketaz gain bestelako test sintaktiko eta semantiko batzuk. Test horiek, gainera, erakusten dute jite adjektibo batzuetan egile inplizitu bat badagoela (Bhatt & Pancheva, 2005; Kayser & Roeper, 1984; Ultra-Massuet, 2013; Roeper, 1987). Egilea inplizitua duten adjektiboak potentzialak dira, halabeharrez. Izan ere, irakurketa hori duten adjektiboak bakarrik dira gai egile izaerako zeharkako *by* eta *por* sintagmak zilegiztatzeko ingelesez (13a)

zein gaztelaniaz (15a), PRO subjektuak kontrolatzeko (14a) eta egileari zuzendutako modifikatzaileak onartzeko (15a). Roeperren (1987), Nevinsen (2002) eta Oltra-Massueten (2013) ingeleseko, gaztelaniako eta katalaneko adibideak ditugu behean (13)-(15). Jite adjektibo moten arteko kontrasteak ikusteko, adjektibo potentzialak eman ditugu (a) adibideetan eta ebaluatiboak (b) adibideetan⁵.

(13) Ingelesa

- a. The view is defensible by anyone.
- b. *The view is defensible by anyone. (Roeper, 1987, 269. or.)

(14) Ingelesa

- a. People are discardable to make bigger profits. (Roeper, 1987, 303. or.)
- b. *The sound is perceptible (in order) to determine its intensity. (Oltra-Massuet, 2013, 94. or.)

(15) Gaztelania

- a. Una opinión manipulable deliberadamente por los medios. (Oltra-Massuet, 2013, 88. or.)

Ingelesa

- b. *These fish are easily comparable (except on the very high reading of *easily*, like 'That building is easily a mile away from here'). (Nevins, 2002, 6. or.; Oltra-Massuet, 2013, 94. or.)

Goiko testek jite adjektibo potentzialetan egile (inplizitu) bat dagoela erakusten dute. *By* eta *por* egile sintagma eta *deliberadamente* bezalako modifikatzaileak predikatu egiledun batekin bakarrik dira bateragarriak. Bestalde, ingelesezko (14a) adibidean, helburuzko perpaus adjuntuaren PRO subjektua (PRO *to make bigger profits*) egile bategen kontrolatzen du, hain zuzen, *discardable* adjektiboaren barruko *discard* aditzaren egileak.

Horretaz gain, adjektibo potentzialek gertaera bat adierazten dutela erakusten duten bestelako modifikatzaileak ere onargarriak dira. Esate baterako, uztargarriak dira gertaera modifikatzen duten sintagma instrumentalekin (16), bai eta aspektu (17) eta modu adberbioekin ere (18) (Fabb, 1984; Kayne, 1981, 1984; Oltra-Massuet, 2013; Roeper, 1987). Hemen ere adjektibo potentzialak (a) adibideetan eta ebaluatiboak (b) adibideetan eman ditugu.

(16) Ingelesa

- a. The surface is washable with regular dish soap and a damp sponge. (Oltra-Massuet, 2013, 90. or.)
- b. *These fish are comparable with a measuring stick. (Oltra-Massuet, 2013, 94. or.)

⁵ Oltra-Massuetek (2013, 94. or.) azentu marka darabil ingelesezko *cómparable* jite adjektibo ebaluatiboan (15b) haren kideko *compárable* adjektibo potentzialetik bereizteko.

- (17) Katalana
 a. Un treball modificable en una hora. (Oltra-Massuet, 2013, 56. or.)
 Ingelesa
 b. *The flaw was perceptible every two years/in one hour. (Oltra-Massuet, 2013, 94. or.)
- (18) Katalana
 a. Una obra fàcilment realitzable. / Una obra realitzable fàcilment.
 b. Una actitud fàcilment admirable. / *Una actitud admirable fàcilment.

Adjektibo potentzialekin emaitza gramatikalak lortzen dira testuinguru hauetan guztietan. Katalanezko *fàcilment* ‘erraz’ adberbioaren erabilerari dagokionez, kontrastea sortzen da adjektibo potentzialen (18a) eta ebaluatiboen (18b) artean. Izan ere, *fàcilment* adjektiboaren aurrean zein atzean ager daiteke adjektibo potentzialekin, baina aurrean bakarrik ebaluatiboekin (Oltra-Massuet, 2013).

Goiko egileek adierazi dutenez, test horiek ez dira guztiz emankorrek eta azaleratzen diren argumentu moten arabera emaitza ez-gramatikalak ere lor daitezke. Nolanahi ere den, onargarritasunak oro har nabarmen egiten du gora argumentuak zehaztugabeak edo pluralak direnean. Izan ere, jite adjektiboek ezaugarri orokorrek adierazten dituzte eta, hein horretan, ulertzekoa da egile zein gai argumentu zehaztugabeekin naturalagoak izatea.

Edozein kasutan, (13)-(18) bezalako adibideak onargarriak izateak erakusten du *-ble* adjektibo potentzialek egitura sintaktiko aberatsa daukatela; alegia, egile implizitua eta gertaera baten interpretazioa barne biltzen dituztela.

4. JITE ADJEKTIBO POTENTZIALAK EUSKARAZ

Atal honetan euskarazko *-garri* adjektibo potentzialetan sakonduko dugu eta erakutsiko dugu *-garri* potentzialek ebaluatiboek baino errazago onartzen dituztela egile implizitari zuzendutako modifikatzaileak, bai eta gertaera bera modifikatzen duten aspektu eta moduzko adberbio eta postposizio sintagmak ere. Horrez gain, zehar osagarri bat ere izan dezaketela ikusiko dugu. Banaketa horretan oinarrituz, proposatuko dugu *-garri* adjektibo potentzialek gertaera bat adierazten dutela eta egile implizitu bat dutela. Gai horretara iritsi aurretik, baina, *-garri* adjektiboen aurkezpen orokorra egingo dugu.

4.1. *-Garri* adjektiboak eta izenak: balioa eta irakurketa modala

-Garri (edo *-karri*)⁶ atzizkiak aditz kategoriako erroei lotuta adjektiboak –eta kasu batzuetan izenak– sorrarazten ditu (Artiagoitia, 1995, 2003; Azkarate, 1990; Azkue,

6 *-Karri -garriren* alomorfoa da. Herskarien eta txistukarien ondoren agertu ohi da, baina ez nahitaez (Euskaltzaindia, 2021, 123., 164. or.).

1925; Euskaltzaindia, 2021; Villasante, 1974). 2.1. atalean esan dugun bezala, *-garrrik* balio aktiboa ala pasiboa izan dezake. Alde batetik, *-garrri* adjektiboaren –edo izenaren– subjektua barruko aditzaren subjektuarekin parekatzen denean, balio aktiboa hartzen du *-garrrik*. Adjektiboen kasuan, balio aktiboa duenean, *-garrri* aditz iragankorrei eta inkoatibo/arazle alternantzia dutenei eransten zaie (19). Kasu horietan guztietan, *-garrrik* kanpo argumentuaren rola xurgatzen du, hots, tresnarena (19a) edo –aditz psikologikoen kasuan– estimulu arazlearena (19b). Esate baterako, *adierazgarri* (19a) eta *aspergarri* (19b) adjektiboen subjektua ‘zerbait adierazi’ eta ‘norbait aspertu’ egiten duten entitateak izango lirateke, hurrenez hurren. Bietan *-garrrik* kanpo argumentua xurgatu du; hots, ekintza edo egoera aldaketa abiatzen duen argumentu arazlea. Egile rola ez da inoiz xurgatzen (Artiagoitia, 1995, 2003). (20a, b, c)-n, *adierazi*, *aspertu* eta *aztoratu* aditzen adibide bana eman dugu, baita horietatik eratorritako jite adjektiboak ere.

- (19) a. *adierazgarri*, *aringarri*, *astungarri*, *babesgarri*, *bereizgarri* eta abar.
 b. *aspergarri*, *aztoragarri*, *barregarri*, *errukarri*, *gogaikarri* eta abar.
 (Euskaltzaindia, 2021, 165. or.)

- (20) a. Adibide hauek gauza asko adierazten dituzte. > Adibide hauek adierazgarriak dira.
 b. Gaueko telebista-saioek aspertzen naute. > Gaueko telebista-saioak aspergarriak dira.
 c. Ekaitzek umeak aztoratzen dituzte. > Ekaitzak aztoragarriak dira.

(19b)-n eta (20b, c)-n ikus daitekeenez, *-garriren* balio aktiboa sorrarazten duten aditz psikologikoen II. taldekoak dira, hots, subjektutzat estimulua eta osagarritzat esperimendatzailea dutenak (Belletti & Rizzi, 1988, 291.-292. or.); esate baterako, *aspertu* eta *aztoratu* (20b, c). Aditz horietatik eratorritako *aspergarri* eta *aztoragarri* adjektiboek, balio aktiboa dutenez, erreferentzia egiten diete egoera psikologikoa eragiten duten estimulu arazleei.

-Garrri atzizkiak izenak sortzen dituenean, aditz iragankorrei atxikitzen zaie eta *-garrrik* kanpo argumentuaren rola xurgatzen du: tresnarena ala arazlearena (Artiagoitia, 2003; Euskaltzaindia, 2021, 123.-124. or.) (21). Izen horien balioa, beraz, aktiboa dela esango genuke. Esate baterako, *babesgarri* izenak (21) ‘zerbait babestu’ egiten duen baliabideari edo tresnari egiten dio erreferentzia.

- (21) *babesgarri*, *berogarri*, *bigungarri*, *estalgarrri* eta abar. (Euskaltzaindia, 2021, 123. or.)

Bestalde, *-garriren* balio pasiboa adjektiboetan bakarrik aurkitzen dugu. Horrelako kasuetan, adjektiboak barruan dituen aditzak bestelakoak izan ohi dira. Bi argumentu dituzten aditzak dira halabeharrez, baina, (19)-koetan ez bezala, subjektua ez da arazlea, ezpada egilea ala esperimendatzailea. Batean zein bestean, aditzaren subjektua biziduna da. Talde honetan sailkatzen dira (i) egile subjektua duten aditz iragankorrak –esate baterako, *aipatu*, *agurtu* eta *aztertu*– (22a); (ii) I.

taldeko aditz psikologikoak, alegia, subjektua esperimendatzailea (eta ergatiboa) dutenak *-gorrotatu*, *maitatu* eta *adoratu*, adibidez– (22b); eta (iii) subjektua esperimendatzailea eta absolutiboz markatua duten aditz psikologikoak, zeinetan gai argumentua postposizio sintagma baten bitartez azaleratzen den⁷ *-fidatu*, *errukitu*, *ohartu* eta abar– (22c) (Artiagoitia, 1995, 2003). (19) eta (21) adibideetako adjektiboek eta izenek ez bezala, (22)-ko adjektiboek erreferentzia egiten diote aditzaren barne argumentuari. Esate baterako, *aipagarria* ‘aipatu daitekeena’ edo ‘aipatzea merezi duena’ da (23a), *gorrotagarria* ‘gorrotatzea merezi duena’ (23b) eta *fidagarria* ‘harekin fidatu zaitezkeena’ (23c).

- (22) a. *aipagarri*, *agurgarri*, *aztergarri*, *ikusgarri*, *irakurgarri* eta abar.
 b. *gorrotagarri*, *maitagarri*, *adoragarri*, *ulergarri* eta abar.
 c. *fidagarri*, *errukigarri*, *ohargarri* eta abar.

(Artiagoitia, 1995, 2003)

- (23) a. Jende askok adibide hori aipatzen du. > Adibide hori aipagarria da.
 b. Nik gaueko telebista saioak gorrotatzen ditut. > Gaueko telebista saioak gorrotagarriak dira.
 c. Jende asko Mikelekin fidatzen da. > Mikel fidagarria da.

(22) eta (23)-ko adjektiboetan, *-garri* osagarriaren rola xurgatu du, hau da, erreferentzia egiten dio aditzaren barne argumentuari. Beraz, barne argumentuaren rola darama adjektiboaren subjektuak. Euskaltzaindiaren (2021, 168. or.) arabera (ikus Azkarate, 1990; Zabala, 1999), bi dira *-garri* adjektiboak balio pasiboan dituen esanahiak: (i) *x izatea merezi duena*, hots, aipatzea merezi duena, ikustea merezi duena, fidatzea merezi duena eta abar; eta (ii) *x daitekeena*, esate baterako, irakur daitekeena, uler daitekeena eta abar. Gure ustez, bi irakurketa horiek beste hizkuntza batzuetan jite adjektiboen bi irakurketa modalekin pareka litezke; alegia, ‘x izatea merezi duena’ irakurketa ebaluatiboarekin eta ‘x daitekeena’ potentzialarekin. *Hausgarri* adjektiboa potentziala litzateke, hots, hauts daitekeena. *Maitagarri*, aldiz, ebaluatiboa, maitatzea merezi duena. Lan honetan *-garri* adjektibo pasiboetatik batez ere potentzialetan jarriko dugu arreta, eta adjektibo horiek konparatuko ditugu *-garri* aktiboarekin, baita *-kor* adjektiboekin ere.

4.2. *-Garri* potentzialaren egile implizitua eta gertaera interpretazioa

Beste hizkuntzetan jite adjektiboen arteko bereizketa egiteko erabili diren testak euskarara ekartzen baditugu, ikusenez *-garri* pasiboetan nahikoa argi banatzen direla adjektibo potentzialak eta ebaluatiboak. Banaketa hori duten hiru test erakutsiko ditugu hemen, hots, egileari zuzendutako modifikatzaileen onargarritasuna, helburuzko perpausaren PRO subjektuaren kontrola eta aspektua edo denbora modifikatzen duten denborazko postposizioekiko bateragarritasuna. Nahiz eta emango ditugun adibide

7 Bellettiren eta Rizziren (1988) sailkapenean ez dira jasotzen horrelako aditz psikologikoak.

batzuk oso naturalak ez izan, *egingarri*, *erabilgarri*, *irakurgarri* edo *ikusgarri*⁸ adjektibo pasibo potentzial batzuek egileari zuzendutako modifikatzaileekin bateragarriak direla dirudite: moduzko postposizio sintagmekin (24a) eta bitartekoa adierazten duten bestelako postposizio sintagmekin (24b). Gainera, beste hizkuntzetan bezala, adjektiboaren subjektu implizituak kontrola lezake helburuzko perpausaren PRO subjektua (24c). Hortaz, badirudi horrelako jite adjektiboetan egile implizitu bat badagoela. Horretaz gain, gertaeraren aspektua modifikatzen duten denborazko postposizio sintagmak ere onar litezke (24d, e)⁹.

- (24) a. Ebakuntza hori kontu handiz egingarria da.
 b. Kometa ikusgarria izango da teleskopio batekin. (*Ikusgarri*ren interpretazio potentzialean, hots, 'kometa ikusi ahal izango da')
- c. Estrategia hori [PRO_i saria irabazteko] e_i erabilgarria da.
 d. Ariketa hori ordu betean egingarria da.
 e. Liburu hori bi eserialditan irakurgarria da.

Beheko adibideak *Egungo euskararen hiztegitik* (Sarasola, 2008) hartuak dira. Ikus daitekeenez, *egingarri* adjektibo potentziala egiteko modua modifikatzen duen adberbio batekin agertzen da *-teknologikoki-* (25a); *irakurgarri* adjektiboa postposizio inesiboa daraman lekuzko modifikatzaile batekin *-sarean-* (25b); *ikusgarri* eta *entzungarri* ablatiboa daramaten lekuzko postposizio sintagmekin *-angelu guztietatik* eta *alde guztietatik* (25c), eta azkenik, *ikusgarri*, instrumentua adierazten duen sintagma komitatibo batekin *-gorputzezko begiekin-* (25d). (25a, b, c) adibideek erakusten dute jite adjektibo potentzialetan gertaera bat kodifikatuta dagoela; beste aldetik, (25d)-k, instrumentua kontrolatzen duen egile implizitu bat dagoela iradokitzen du.

- (25) a. Langileek beren askatasun pertsonalean horrelako inbasioen aurka zuten ezinbesteko erresistentziak **teknologikoki egingarri** zenaren aurkako militantzia ekarri behar zuen. (Toynbee apud Mendiguren, 2000, 382. or.).

8 *Ikusgarri* adjektiboak interpretazio ebaluatiboa zein potentziala izan dezake. Lehenengoan 'ikustea merezi duena' adierazten du; bigarrenean, aldiz, 'ikus daitekeena'. (24b) adibidean bigarren interpretazioa duen adjektiboa darabilgu, hots, 'teleskopio batekin ikusi ahal izango da' adiera duena. (26b) adibidean, aldiz, interpretazio ebaluatiboa.

9 Berrikusle batek ohartarazi digunez, egile implizituaren aldeko beste froga bat bigarren mailako predikatuen zilegiztatzeak etor liteke. (i) adibidean ikus daitekeenez, *begiak itxita* predikatuak erreferentzia egiten dio egile implizituari.

(i) Ariketa hori begiak itxita ere egingarria da.

Berrikusle berak dioskunez, bigarren mailako predikazioa onartzeak iradokiko luke egile implizitua semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere indarrean dagoela. Izan ere, Berrok et al.-ek (2022) eta Odriak et al.-ek (2022) bigarren mailako predikazioa erabili dute erakusteko inpersonalen subjektu implizitua sintaktikoki islatu egiten dela. Bestelako test bat ere ematen dute: anafora bihurkari eta elkarkarien uztardura. Lan honetan ez dugu gai honetan sakonduko artikulua helburuetatik gehiegi urrunduko gaituelako, baina etorkizunean egitura inpersonalen eta jite adjektibo potentzialen subjektu implizituak konparatzea oso interesgarria litzateke, argitzeko, hain zuzen, adjektibo potentzialen egile implizitua sintaktikoki ere indarrean ote dagoen. Ikusi honetaz 12. oin-oharra.

- b. Pagotxa, hi!, liburu osoa **sarean irakurgarri**. (*Berría*, 2006-03-21)
- c. Eroa Sinagogan dago orain, oholtzaren gainean, **angelu guztietatik ikusgarri, alde guztietatik entzungarri**. (Juaristi, 2003, 98. or.)
- d. Jainkoa (bedeinka bedi!) ez baita **ikusgarri gorputzezko begiekin**. (Kintana, 2006, 51. or.)

Kontrara, *maitagarri* adjektibo ebaluatiboa edo *ikusgarri* adjektiboen interpretazio ebaluatiboa erabiltzen baditugu, emaitzak askoz ere kaxkarragoak dira horrelako tesuinguruetan. Adjektibo ebaluatiboek adierazten dituzten ezaugarriak ez dira bateragarriak egileari zuzendutako modifikatzaileekin, ezta modua edo aspektua moldatzen dutenekin ere. Izan ere, adjektibo horiek egoera baten gainean eraikitzen dira, ez gertaera baten gainean (Moreira, 2014). Gertaerarik ez dagoenez gero, ezin da gertaeraren modua eta aspektua modifikatu, eta, gertaerarik gabe, ez dago egile (implizitu)rik ere.

- (26) a. *Ume hori kontu handiz maitagarria da.
- b. *Eiffel dorrea ordu betean ikusgarria da. (*Ikusgarri*ren interpretazio ebaluatiboan)
- c. *Ume hori bost minutuan maitagarria da.
- d. ?*Eiffel dorrea [PRO arteaz ikasteko] ikusgarria da. (*Ikusgarri*ren interpretazio ebaluatiboan)

(24)-ko adibideak oso ohikoak ez diren arren, (25)-en erakutsi dugu corpusetan baidirela horrelako egiturak, nahiz eta urriak izan. Gainera, (24)-(25) eta (26) adibideen arteko alderaketak erakusten du neurri batean euskaraz ere badagoela desberdintasun argia adjektibo potentzialetan eta ebaluatiboen artean. (24) adibideekin hiztun batzuek zalantza egin badezakete ere, (26)-koak ez-gramatikaltzat jotzen dira berehala. Beste hizkuntzetarako proposatu izan den bezala, euskarazko *-garri* adjektibo potentzialetan gertaeraren interpretazioa eta egile implizituaren irakurketa ahalbidetzen dituen egitura dagoela dirudi. Hori da, hain zuzen, lan honetan proposatzera gatozena. 4.3. atalean emango ditugu xehetasunak.

Jite adjektibo potentzialek egitura sintaktiko aberatsa daukatela erakusten duen beste ebidentzia bat zehar-osagarrien erabileran aurki genezake. *Esleigarri* moduko adjektibo potentzial bat, zeina *esleitu* aditzetik eratorria den, helburua edo hartzailea adierazten duen datibo argumentu batekin bateragarria da.

- (27) a. Eratorriak ez diren tresnen kasuan, **tresnak sortutako etekinei esleigarria** zaien zatia eta gainerakoa bereizten ditugu. (Kutxa taldea, *Urteko txostena*, 2011, 187. or.)
- b. Era berean, kontuan izanik **Udalei esleigarria** dan eskumen bat dala, gizarte zerbitzuen alorrean funtzinoak zehazteko... (*Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 2008, 227. or.)

(27a) adibidean, adjektiboaren subjektua *-zatia-* da *esleitu* aditzaren osagarri zuzena, eta datiboz markatutako argumentua *-tresnak sortutako etekinei-* da zatiaren hartzailea. Orobat, (27b)-n, adjektiboaren subjektua *-eskumen bat-* da

aditzaren osagarri zuzena eta datiboa daraman determinatzaile sintagma *-Udalei-* hartzailea. Bi adibideen interpretazioan dago egile implizitu bat *-hots, zatia eta eskumena esleitzen dituen egile arbitrarioa-* eta gertaera bat *-esleipena bera-*. Datibo argumentuak gertaera horien hartzaileak edo onuradunak dira. Hartzaileak edo onuradunak sartzea Apl(ikatibo) buru baten (Pylkkänen, 2008) ardura dela ontzat hartzen badugu, *-garri* adjektibo potentzialetan Apl ere islatzen dela pentsatuko genuke. Beraz, aS eta BozS izateaz gain, AplS ere egongo litzateke horrelako adjektiboetan.

Hartzailerik eta onuradunik ezin daiteke agertu, noski, interpretazio ebaluatiboa duten jite adjektiboetan¹⁰. Interpretazio ebaluatiboa sorrarazten duten aditzek eurek ez dute normalean zehar-osagarririk onartzen (*maite izan, gorrotatu* eta abarrek). *Ikusi* aditzak, esate baterako, har lezake jabe datibo bat (*Jonek aurpegia ikusi zion Aneri* perpausean esate baterako), baina *ikusiren* esanahi gertaeradun horrek ez du irakurketa ebaluatiboa ahalbidetzen. Hortaz, adjektibo ebaluatiboetan ez bezala, *-garri* adjektibo potentzialetan gertaera bat gramatika egituran kodifikatua dagoela dirudi, eta gertaera horrek hartzaile bat izan dezakeela zenbait kasutan¹¹.

4.3. *-Garri* potentzialaren proposamen bat

Atal honetan *-garri* adjektibo potentzialen analisi morfosintaktikoa egingo dugu. Arriagoitiak (1995, 2003) proposatu zuen bezala, guk ere *-garriren* sarrera bakarra dela aldarrikatuko dugu. Adjektibo horien balio eta irakurketa modal desberdinak sorrarazten dituen aldagaia egiturazkoa da; hots, *-garririk* azpian hartzen duen egitura sintaktikoaren araberakoak dira bai balioa, bai irakurketa modala.


Grezierarako eta katalanerako proposatu denaren ildotik (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013), *-garri* potentzialean gertaeraren interpretazioa sortzen duen a funtzio burua eta egilea gaineratzen duen Boz burua islatzen direla proposatuko dugu. Egitura hau dute *irakurgarri* edo *ulergarri* adjektiboek.

10 Berrikusle batek gogora ekarri digu *maitagarri* eta *ikusgarri* adjektibo ebaluatiboak datibo argumentuekin ager daitezkeela kasu batzuetan:

(i) Maitagarria egin zait Fermin Etxegoien-en *Autokarabana* nobelako protagonista (K. Agirre, *Deia*, 2009-11-13).

Horrelako datibo argumentuak (isildutako *niri* (i) adibidean) ez dira adjektiboaren barruko aditzarekin lotzen (**niri maite izan*), ezpada gorago islatu den *egin* kopularekin. Hortaz, datibo horiek agertzeak ez du esan nahi *maitagarri* adjektibo ebaluatiboaren barruko egitura aberatsa denik.

11 2. atalaren amaieran aipatu dugunez, Oltra-Massuetek (2013) eta Alexiadouk (2018) proposatu dute adjektibo ebaluatiboetan ez dela aS islatzen; hots, adjektiboa zuzenean eratoritzen dela errotik. Horri lotuta egongo da, beharbada, AplS ere ez egotea. Izan ere, kanonikoki Apl dagoen guztietan a ere badago (ikus, hala ere, Berro & Fernández, 2019).

(28) -*Garri* potentziala

Erroaren gainean islatzen den *a* buruak funtzio hirukoitza dauka: lehenik, gertaerazko interpretazioa gaineratzen du –zeinari eduki semantikoa erroak ematen dion–; bigarrenik, aditz kategoria ematen dio osagai sintaktikoari; azkenik, gertaeraren gai *theta* rola daraman argumentu bat gehitzen du bere espezifikatzailean. Argumentu hori interpretazio irekia duen operatzaile bat da (OP) eta λx adjuntua dauka: $OP(\lambda x)$. Haren ondotik islatzen den Boz buruak gertaera horri lotutako egile argumentu semantiko bat gaineratzen du (λy) (Alexiadou et al., 2015)¹². Ondoren, Asp buruak gertaera egoera bihurtzen du eta Moduak, interpretazio erresultatiboa duen AspSren aldamenean egonik, modalitate potentziala gaineratzen du. Azkenik, adjektibo burua islatzen da. Buru horrek ere funtzio hirukoitza dauka. Alde batetik, adjektibo kategoria ezartzen dio osagai sintaktikoari. Bestalde, interpretazio irekia duen $OP(\lambda x)$ argumentua –aditzaren barne-argumentua– bere espezifikatzaile gunera erakartzen du (partizipioetan gertatzen den bezalaxe, ikus Bruening [2014] eta Berro [2019], besteak beste). Horrela, adjektiboaren subjektua aditzaren barne argumentuarekin indizekidetu egiten da. Azkenik, Bozaren λy argumentua uztartu egiten du –beste hizkuntza batzuetan buru Pasiboak egingo lukeen moduan– eta interpretazio arbitrarioa ematen dio. Egitura morfosintaktiko hori barruan duten adjektiboek irakurketa pasiboa, potentziala eta egileduna dute.

12 9. oin-oharrean adierazi dugun bezala, egile implizituaren izaera semantikoa eta sintaktikoa are gehiago zehaztu liteke beste test sintaktiko batzuk erabilita: bigarren mailako predikazioa, anafora bihurkari eta elkarkarien uztardura, eta abar. Egile implizitua semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere indarrean balego, BozSren espezifikatzailean islatuko litzateke. Edozein kasutan, lan honen analisiari ez lieke kalterik egingo. Izan ere, guk lan honetan adjektiboak aSren espezifikatzailean dagoen argumentua erakartzen duela proposatu dugu.

5. JITE ADJEKTIBO AKTIBOAK

4.1. atalean ikusi dugunez, balio pasiboaz gain, *-garrik* balio aktiboa ere izan dezake. *-Garri* izenek beti dute balio aktiboa, eta, adjektiboen kasuan, balioa aktiboa izango da baldin eta sortzezko aditzaren subjektua arazlea bada –tresna edota estimulua II. taldeko aditz psikologikoen kasuan–. (29) eta (30)-en errepikatu ditugu lehenago (19) eta (20) adibidean erakutsi ditugun *-garri* adjektibo aktiboak.

- (29) a. *adierazgarri, aringarri, astungarri, babesgarri, bereizgarri* eta abar.
 b. *aspergarri, aztoragarri, barregarri, errukarri, gogaikarri* eta abar.
 (Euskaltzaindia, 2021, 165. or.)
- (30) a. Adibide hauek gauza asko adierazten dituzte. > Adibide hauek adierazgarriak dira.
 b. Gaueko telebista-saioek aspertzen naute. > Gaueko telebista-saioak aspergarriak dira.
 c. Ekaitzek umeak aztoratzen dituzte. > Ekaitzak aztoragarriak dira.

Adjektibo hauen subjektuak arazlearen rol tematikoa dauka. Adjektiboaren erroa aditezkoa denean –hau da, aditz gisa ere erabil daitekeenean– aditzaren subjektua izaten da arazlea: *adierazgarri, aringarri, babesgarri* eta abar. Erroa aditz moduan erabil ezin daitekeenean –*astungarri, barregarri* eta abarretan– adjektiboaren subjektua erroak adierazten duen egoeraren edo gertaeraren eragilea dela ulertzen da¹³.

4.2. atalean erabili ditugun test sintaktiko eta semantikoak horrelako adjektiboekin erabiltzen ditugunean emaitza nahasiak lortuko ditugu. Noski, test horietako batzuek subjektu inplizitua dagoen ala ez frogatzeko balio dute, eta *-garri* adjektibo aktiboetan gertaeraren arazlea da adjektiboaren subjektua; beraz, ez da inplizitua eta, gainera, egilea ere ez da. Hori kontuan izanik, espero izatekoa da egileari zuzendutako adberbioak eta postposizioak (e.g. *kontu handiz*) bateraezinak izatea adjektibo hauekin (31a). Ildo beretik, *-garri* aktiboen subjektu arazleak ezin du kontrolatu helburuzko perpaus adjuntu baten PRO subjektua (31b). Bestalde, badirudi *-garri* aktibo batzuek errazago onartzen dituztela gertaera modifikatzen dituzten adberbio edo postposizio sintagmak, ez egile bat behar duten moduzko *erraz* eta *astiro* adberbioak, baina bai *apurka-apurka* (31c, d) eta aspektua modifikatzen duten *ordu betean / urte betean* (31e). Egoera aldaketa (ez-psikologiko) adierazten duen *hilgarri* adjektiboa, esate baterako, ez da guztiz txarra modifikatzaile horiekin. Aditz psikologikoen gainean eraikitakoak (e.g. *kezkagarri*), ordea, kaskarragoak dira horrelako testuinguruetan (32).

13 Bada puntu interesgarri bat *barregarri* adjektiboarekin (eta mota bereko *negargarri* bezalakoekin) zerikusia duena. Izatez, *barre* ezin daiteke aditz gisa erabili, ez baldin badugu *egin* aditz arinarekin konbinatzen, i.e. *barre egin*. Nolanahi ere, ohar bedi irakurlea *barre egin* aditzaren subjektua, zeina [+gizaki] izan behar duen halaberharrez, ez dela *barregarri* adjektiboaren subjektua. *Barregarri* adjektiboaren subjektua arazle bat da, barrea egiten duena, ez barre egiten duen gizakia.

- (31) a. *Substantzia hau kontu handiz hilgarria / sendagarria da.
 b. *Substantzia hori_i [PRO_i aseguru kobratzeko] hilgarria da.
 c. Tabakoa apurka-apurka hilgarria da.
 d. ?Belar hauek apurka-apurka sendagarriak dira.
 e. ?Gaixotasun hau ordu betean / urte betean hilgarria da.
- (32) a. *Berri hau kontu handiz kezkarria da.
 b. *Berri hori_i [PRO_i nahi dutena lortzeko] kezkarria da.
 c. ?Egoera hori apurka-apurka kezkarria da.
 d. *Berri hau ordu betean / urte betean kezkarria da.


Beraz, *-garri* adjektibo aktiboek adjektibo ebaluatiboekin bat egiten dute test batzuen jokabideari dagokionez. Goian esan bezala, test horietako batzuk egile argumentu baten mendekoak dira; hau da, emaitza gramatikalak emango dituzte, baldin eta adjektiboek egile inplizitu bat badaukate. Hori da, hain zuzen, *kontu handiz* postposizio sintagmaren eta PRO subjektuaren gaineko kontrolaren kasua. *Apurka-apurka* eta *ordu betean* ereduak aspektu modifikazioa, ordea, ez da egilearen arabera, ezpada prozesu bat adierazten duen gertaera baten mendekoa. Horregatik (31c) ez da (31a, b) bezain txarra. Edozein kasutan, ez dirudi adjektibo potentzialek bezain ondo onartzen dutenik horrelako modifikazioa. Bestalde, egoera psikologiko baten gainean eraikitzen diren adjektiboak (32) are kaskarragoak direla dirudi.

Neurri batean modifikazioa posible dela ikusita eta, gainera, aditzaren arazle argumentua xurgatzen dutela kontuan hartuta, *-garri* adjektibo aktiboetan aditzezko egitura dagoela pentsa liteke, hau da, *hilgarri*, *kezkarria* zein *hunkigarri* bezalakoetan aS islatzen dela. Hipotesi horren aldeko da *-garri* adjektibo aktiboak mendeko aditzaren osagarriarekin batera ager daitezkeela (Azkarate, 1990, 24.-25. or.). Aditzaren osagarria aditzera inkorporatu den osagarri biluzi bat izan daiteke (33), edo genitibo marka daraman izenlaguna (34). Lehenak izen elkartutzat har litezke. Beheko adibideak zuzenean hartu ditugu Azkarateren (1990) eta Grácia eta besteren (1995) lanetatik. Lehenak Axularrenak (33) (34a, b) dira; azkena, aldiz, Mogelena (34c).

- (33) a. Hobe ago, meritu ago eta **bihotz ezportça garri** ago baçategueyen ere, cero-
 rrec ceure escuz bici cinela eta sendo cinela probearen faboratcea. (Ax. 240)
 b. Eta hala deliberatu nuen, **buru-eragotz carri** beçala, liburutto baten, bi parte-
 tan partituriç, guero, hunen gaiñean eguitera. (Ax. 16)
 (Azkarate, 1990, 24. or.)
- (34) a. [...] nagusitasunetic eta alferqueriatic sortcen den, guero haur, da **gure galgarria**. (Axular apud Azkarate, 1990, 24. or.)
 b. [...] **hainbat calteren eta damuren** haste eta **pitz-garri** den alfertasuna. (Axular apud Azkarate, 1990, 24.-25. or.)
 c. Hotz larregia, **zaharren hilgarria** eta **gazteen zahargarria**. (Mogel apud Grácia et al., 1995, 611. or., 637. or.)

Arazleaz gain, sintaktikoki indarrean den gai argumentua ere izan dezaketen neurrian, *-garri* aktiboen barruan aS egitura islatzea beharrezkoa da, a funtzio buruak baitu gaiaren rola ezartzeko gaitasuna –bai eta arazlearena ere, 6. atalean proposatuko dugunez–. Horri dagokionez, *-garri* aktiboak *-garri* potentzialen antzekoak izango liriateke, azken horien hezurdura sintaktikoan ere aS badagoela proposatu baitugu (ikus 4.3. atala). Nolanahi ere den, argumentu egiturari dagokionez, badira desberdintasun batzuk adjektibo potentzialen eta aktiboen artean. Alde batetik, adjektibo potentzialak aditz egiledunen gainean eraikitzen dira, eta egile inplizitu bat dagoela interpretatzen da. Horregatik, *-garri* potentzialetan aSren gainean BozS islatzen dela proposatu dugu (28). Ikusi dugunez, Boz burua egile inplizitua gaineratzeaz arduratzen da. *-Garri* aktiboetan, ordea, ez dago egile inpliziturik, eta, hortaz, BozS geruzarik ez dela islatzen uste dugu. Adjektiboaren mendeko aditzaren subjektua arazle bat da, eta adjektiboak rol tematiko hori xurgatzen du.

(35) *-Garri* aktiboa



Bestalde, adjektibo potentzialetan ez bezala, adjektibo aktiboetako aditzak egoera aldaketa bat adierazten du. Adjektibo potentzialen barruan dauden *irakurri*, *egin* edo *ikusi* aditzetan osagarri zuzenak ez du egoera aldaketa bat pairatzen; bai, ordea, *bil*, *aspertu* eta *hunkitu* aditzetan. Egoeraz aldatzen den barne argumentua Perpaus Txiki (PT) baten barruan kokatu dugu (35), hainbat lanetan egin den bezala (Alexiadou & Iordăchiaia, 2014; Copley & Harley, 2015; Harley, 2005). PTa beste lan batzuetan erabiltzen den EmaiztaSren (*Result Phase*, ResP) parekoa litzateke (Ramchand, 2008), hau da, egoera bat, zeinak a-ren osagarrian, emaitza egoera bat adierazten duen. Aditzak emaitza bat adierazteak zerikusi zuzena dauka arazle rola izatearekin, aditzak emaitzako egoera bat adierazten duenean, arazle argumentu bat har dezakeelako (Berro, 2015; Wood, 2012, 2015). Schäferrek (2012) iradoki bezala, arazlearen rola zilegiztatuko da, baldin eta aditzaren hezurduran Emaizta bat adierazten duen geruza bat badago. Arazlearen rola, hortaz, aSren barruan ezartzen da.

Analisi honek beste galdera batera garamatza: zergatik dira *-garri* adjektiboak arazlea (eta ez egilea) erakartzeko gai? Galdera hori oso interesgarria da argumentu

egituraren azterketarako. Izan ere, gramatika sortzailean kanpo argumentu guztiak –hots, egileak, arazleak eta batzuetan egoeraren eusleak– hezurdura sintaktikoan buru berak txertatzen dituela onartzen da (Chomsky, 1986; Kratzer, 1994, 1996). Gai honi 6. atalean helduko diogu.

6. GAIK, ARAZLEAK ETA EGILEAK

Artiagoitiak (1995, 2003) proposatu zuen *hunkigarri* eta *hilgarri* adjektibo aktiboe-tan arazlea *hunkitu* eta *hil* aditzen osagarria dela, nahiz eta agerian subjektu baten itxura duen. Horrela, *hunkitu* bezalako aditz psikologikoetarako, Belletti eta Rizziren (1988) hipotesiari segitzen dio (baita Pesetskyk [1995] proposatutakoari ere), baina ad-jektibo aktibo guztietara orokortu daitekeela iradokitzen du. Beraz, haren arabera, (36) ereduko perpausetan ergatiboa duten argumentuak benetan aditzaren lehen osagarriak izango lirateke eta hierarkikoki absolutibo kasua duten argumentuak baino beherago leudeke. Bi argumentuak aditz sintagmaren barruan egongo lirateke.

- (36) a. [_{AS}Jon artikuluak hunkitu du]. > Artikulua hunkigarria da.
 b. [_{AS}Jon substantzia honek hil du]. > Substantzia hau hilgarria da.

Artiagoitiak (1995) hainbat diagnostiko erabiltzen ditu aditz horien –zehazki, *hunki-tu* bezalako– ergatibo argumentua kanpo argumentua ez dela erakusteko: ergatiboa duten argumentu arazleek ezin dute interpretazio arbitrarioa izan 3. pertsona pluraleko *pro* argumentuak direnean (37); egitura arazle batean ezin dira araziak izan (38b); egi-tura bihurkari iragangaiztuan ezin dira agertu (39); azkenik, ezin dira egitura inper-so-nalean agertu (40a) (ikus Artiagoitia, 1995, 2003, xehetasunetarako).

- (37) Gorpua estali dute... (*Baliteke elurra izatea). (Artiagoitia, 1995, 383. or.)
- (38) a. Artikuluak Jon hunkitu du.
 b. *Mirenek artikuluari Jon hunkiarazi dio. (Artiagoitia, 2003, 166. or., moldatua)
- (39) #Jon kezkatzen da.
 'Jon bere burua kezkatzen du'. (Artiagoitia, 2003, 167. or., moldatua)
- (40) Iaz jende asko lagundu zen hemen.
 a. ?? izan ere, alkatearen gestioak lagundu zuen.
 b. izan ere, alkateak berak lagundu zuen. (Artiagoitia, 1995, 384. or.)

Azken diagnostiko horretaz 7. atalean jardungo dugu. Arazleak duen ergatibo kasua-ri dagokionez, egile horrek proposatu du aditz horiek zehaztuta dakartela argumentu batek berezko ergatibo kasua jaso behar duela. Guk ez ditugu azken xehetasun horiek lan honetan eztabaidatuko, baina bat etorriko gara Artiagoitiarekin ergatibo kasua du-ten bi argumentu motaren arteko banaketarekin. Gure analisisian egileak eta arazleak, kasu markaketa bera erakusten duten arren, bi gune sintaktikotan txertatzen dira, eta Artiagoitiaren ildoari jarraikiz, arazleak aS barruan sartzen dira.

Azkenaldian egindako lan batzuek (Alexiadou, 2014; Alexiadou & Anagnostopoulou, 2020; Alexiadou et al., 2006) proposatu dute arazleak egileak baino beherago sartzen direla sintaxian eta a txikiarekin lotzen direla (eta ez Bozarekin). Zehazki, egileari Bozak ematen dio rol tematikoa, eta Bozaren geruzan txertatzen dira; arazleari, aldiz, a-k ematen dio rol tematikoa eta aS barruan sartzen dira.

Argumentu egituraren ikerketan zenbait alderditan lortu dira, hain zuzen, analisi hori arrazoitzen duten datuak. Lehenik, arazleak bakarrik ager daitezke postposizio sintagma gisa inkoatibo/arazle alternantzia duten aditzen aldaera inkoatiboan (41b) (Alexiadou et al., 2006; Alexiadou & Iordăchioaia, 2014; Alexiadou & Schäfer, 2006; Levin & Rappaport Hovav, 2005; ikus Berro & Fernández, 2022, euskararako). Egilea ezin da horrelakoetan PS gisa azaleratu (41c).

- (41) a. Euriak/Jonek egurra hondatu du.
 b. Egurra euriarekin hondatu da.
 c. *Egurra Jonekin hondatu da.

Bigarrenik, barrutik arazitako gertaera bat adierazten duten aditzetan (e.g. *loratu* eta *usteldu*) aldaera iragankorraren subjektuak arazleak bakarrik izan daitezke, alegia, gehien-gehienetan argumentu ez-bizidunak. Barrutik arazitako gertaerak aditz iragangaitzen forma izaten dute (42a), eta urte askoan egitura iragankorrak onartzen ez dituztela uste izan da (Levin & Rappaport Hovav, 1995). Nolanahi ere den, zenbait egilek (Alexiadou, 2014; McKoon & Macfarland, 2000; Wright, 2001, 2002) erakutsi dute, arraroak izan arren, barrutik arazitako aditzak egitura iragankorretan agertzen direla, esate baterako ingelesez eta grezieraz. Horrela gertatzen denean, baina, subjektua ez da egilea izaten (42b), ezpada arazlea. Gainera, normalean naturarekin lotutako indarrak izaten dira (42c). Entitate bizidunak ez dira egitura iragankor horietan agertzen hizkuntzartean (42b) –aditzak ez badu adiera metaforikoa behinik behin– (Alexiadou, 2014; McKoon & Macfarland, 2000; Wright 2001, 2002; euskararako, ikus Berro & Fernández, 2022 eta Berro et al., 2018).

- (42) a. The roses bloomed.
 b. *John bloomed the roses. (Alexiadou, 2014, 881. or.)
 c. Early summer heat blossomed the trees across the valleys. (Wright, 2001, 106. or.)

Euskaraz ere hala gertatzen da barrutik arazitako gertaera bat adierazten duten aditzekin (Berro et al., 2018; Berro & Fernández, 2022; Oihartzabal, 2003b).

- (43) a. Gereziondoak loratu dira.
 b. *Lorezainak gereziondoak loratu ditu.
 c. ?Maiatzeko eguzkiak gereziondoak loratu ditu.

Argumentu arazle horiek dira hain zuzen PS gisa azaleratu daitezkeenak egitura inkoatiboan:


- (44) Gereziondoak maiatzeko eguzkiarekin loratu dira.

Alexiadouren (2014) arabera, argumentu arazleen banaketa horrek zera adierazten du: argumentu arazleak aditzaren esanahiarekin lotuago daude, aditzak zilegiztatzen ditu tematikoki eta, ondorioz, aditzetik hurbilago sartzen dira sintaxian, aS barruan. Horregatik azaleratu daitezke PS gisa egitura inkoatiboetan eta horregatik daude baimenduta barrutik arazitako gertaerak adierazten dituzten aditzetan. Barrutik arazitako aditzetan arazle batzuk bakarrik dira onargarriak *-ez-bizidunak* eta gehienetan naturari lotuak, aditzak berak murriztapenak ezartzen dituelako. Egileak, ordea, aditzetik urrunago sartzen dira, aditzetik kanpora dagoen funtzio buru batean; hots, BozSn. Egileak hartzen dituzten aditzetan, aditzak ez du murriztapenik ezartzen subjektuaren nolakotasunari dagokionez eta, zentzu horretan, egileek ez dute horren lotura esturik aditzekin.

Egileen eta arazleen arteko banaketak berebiziko garrantzia dauka *-garri* adjektiboen azterketan; izan ere, *-garri* adjektiboen eraikuntzan egileak eta arazleak bereizten dira argi eta garbi. Aditz arazle baten gainean eraikitzen den *-garri* adjektibo batek arazlearen rol tematikoa bakarrik xurga lezake (45a), inoiz ere ez egilearena (45b) (Artiagoitia, 1995, 2003). Baita arazle zein egile subjektua izan lezakeen aditz batean ere –e.g. *hil-*:


- (45) a. Pozoiak armiarma hil du. > Pozoia hilgarria da.
 b. Jonek armiarma hil du. > *Jon hilgarria da.

Berriki, Alexiadouk eta Anagnostopoulouk (2020) II. taldeko aditz psikologikoen azterketa egin dute, Bellettiren eta Rizziren (1988) *preocupare* motakoaren gainekoa, hain zuzen *-euskarazko hunkitu*, esate baterako, eta aldarrikatu dute aditz horietan estimulua ez-egileduna denean *-hots*, arazle hutsa denean– bi argumentuak sartzen direla aSren barruan. Goian esan dugun bezala, Artiagoitiak (1995, 2003) horrelako euskarazko aditzetan *-hunkitu* bezalakoetan– proposatu du arazlea aditzaren osagarri gunean sortzen dela, eta bi argumentuak *-ergatiboa* eta *-absolutiboa*– aditz sintagmaren barruan sartzen direla. Guk, bi lanekin bat eginez, bi argumentuak aSren barruan txertatzen direla proposatuko dugu; izan ere, goian esan dugun bezala, aditzak arazlea zilegiztatzen du tematikoki, eta aditzetik hurbilago dago, gaia bezala eta egilea ez bezala. Nolanahi ere den, ez gara bat etorriko Artiagoitiak proposatutako argumentuen kokapenarekin; gure analisisan, arazlea gaia baino gorago sartuko dugu sintaxian eta, horrela, ergatibo eta absolutibo argumentuen ohiko hierarkia mantenduko dugu. Argumentuen kokapenari dagokionez, Alexiadourekin eta Anagnostopoulourekin (2020) bat gatoz.



Besterik dira egileak. Arazleak aSren barruan sartzen dira eta egileak, aldiz, BozSren geruzan. Horrek ondorio interesgarriak dakartza *-garri* adjektiboen azterketarako:

-*garri* adjektiboak erakartzen duen operatzailea aSren barruan gaineratzen da. Batetik, -*garri* potentzialetan gaia da aSren barruan dagoen argumentu sintaktiko bakarra. Egitura horretan egilea –eta kanpo argumentua– semantikoki indarrean egon arren, ez da sintaktikoki islatzen, eta gainera BozSren geruzan txertatzen da (47a). Bestalde, -*garri* aktiboetan, arazlea aSren espezifikatzailean dago (47b). Egilerik ez dago egitura horretan, eta gaia beherago dago, aSren espezifikatzailea baino beherago. Egitura hauetan, Asp eta Modu sintagmak ez ditugu irudikatuko, zuhaitzak garbiago erakuste aldera.



(45b) bezalako testuinguru batean adjektiboak ezin du subjektuaren rola xurgatu, *Jon* kasu horretan egilea delako, eta egileak Bozaren geruzan txertatzen direlako. Gainera, esan bezala, -*garrik* Bozaren argumentu semantikoa uztartu egiten du eta interpretazio arbitrarioa ematen dio. (45a)-n, ordea, subjektua –*pozoia*– ez-egileduna eta ez-biziduna izanik, arazle hutsa da eta, ondorioz, aSren espezifikatzailean sortua da. Adjektiboak gune horretan sortutako operatzailea bere espezifikatzailean erakar dezake.

7. -GARRI ADJEKTIBOAK ETA EGITURA INPERTSONALA

Artiagoitiak (1995, 2003) erakutsi bezala, lotura interesgarri bat dago -*garri* adjektiboaren banaketaren eta egitura inpertsonalaren artean. Egitura inpertsonaletan ezin dira subjektutzat arazle huts bat, ez-egilea, duten aditzak agertu. Bestela esanda, -*garri* aktiboaren irakurketa baimentzen duten aditzak ezin dira agertu egitura inpertsonalean. Azter dezagun *hil* aditzaren kasua. *Hil* aditza egitura arazlean (48a), inkoatiboan (48b) eta inpertsonalean (48c) ager daiteke. Ikus daitekeenez, egitura inkoatiboa eta inpertsonala morfologikoki berdinak dira. Modifikatzaileak erabili ezean, (48b) eta (48c) anbiguoak dira.

- (48) a. Jonek / pozoiak armiarmak hiltzen ditu.
 b. Armiarmak (berez) hiltzen dira.
 c. Armiarmak (nahita) hiltzen dira.
 Interpretazio posiblea: baten batek (e.g. Jonek) armiarmak hiltzen ditu.
 Ezinezko interpretazioa: pozoiak armiarmak hiltzen ditu.

(48c) ereduco adibide batean dagoen subjektu implizitua egile bat izan behar da, halaberrez. Ezin da arazlea izan. Alegia, (48c) ereduco adibide bat entzuten dugunean, ezin genezake interpretatu subjektu implizitua *pozoia* entitate bizigabe bat denik¹⁴.

Arazleen eta egileen arteko banaketa honek lotura zuzena dauka *-garri* adjektibo aktiboen subjektuekin. Izan ere, egitura inbertsonala baimentzen duen *hil* aditzaren aldaerak ez du *-garri* adjektibo aktiboa sorrarazten (49a). Kontrara, egitura inbertsonala onartzen ez duen *hil* aditzaren aldaerak –subjektutzat arazle bat duenak– *-garri* aktiboa baimentzen du (49b)¹⁵.

- (49) a. Jonek armiarmak hiltzen ditu. > *Jon hilgarria da.
b. Pozoiak armiarmak hiltzen ditu. > Pozoia hilgarria da.

Berrok eta bestek (2022) eta Odriak eta bestek (2022) berriki proposatu dutenari jarraikiz, irakurketa inbertsonalean subjektu implizitua [+gizaki] tasuna duen izenordain isila da. Analisiaren xehetasunetan ez dugu sakonduko, ez baitira berebizikoak lan honen helbururako, baina bada puntu bat nabarmendu beharrekoa. Inbertsonaletako subjektu implizitua [+gizaki] den izenordain bat baldin bada, izenordain hori nekez sar liteke arazleen gune sintaktikoan, hots, aSren espezifikatzailean. Izan ere, aSren espezifikatzailean sartzen diren arazleak ez-egileak eta gehienetan ez-bizidunak dira. Hortik dator *-garri* adjektibo aktiboen eta inbertsonalen arteko bateraezintasuna: *-garri* aktiboetan erabiltzen diren aditzak eta argumentu arazleak ezin dira agertu egitura inbertsonalean, *-garri* aktiboak aSn txertatzen diren arazleak erakartzen dituelako; alegia, arazle ez-egileak eta gehienetan ez-bizidunak, eta inbertsonaletan, subjektu implizituak [+gizaki] izan behar du halaberrez; hain zuzen, Bozaren espezifikatzailean txertatzen den argumentu bat.

Bestalde, *-garri* potentzialetan agertzen diren aditzek eta egile argumentuek oso bestelako jokabidea dute. Horiek badira bateragarriak egitura inbertsonalarekin. *Irakurgarri* edo *ulergarri* adjektiboetan dauden aditzak, hots, *irakurri* eta *ulertu*, erraz ager daitezke egitura inbertsonaletan, *-garri* potentzialean duten interpretazio antzerakoarekin.

- (50) a. Liburu hau irakurgarria da.
b. Liburu hau erraz irakurtzen da.

14 Berrikusle batek ohartarazi digunez, bigarren mailako predikazioak arazleen eta egileen arteko bereizketa egiteko balio du.

(i) a. Jonek armiarmak begiak itxita ere hiltzen ditu.
b. Armiarmak begiak itxita ere hiltzen dira.

(ii) a. Pozoiak berotuta armiarmak hil ditzake.
b. (Berotuta) armiarmak (berotuta) hiltzen dira.

(ib) adibidean bigarren mailako predikatuak (*begiak itxita*) subjektu implizituari egiten dio erreferentzia. (iib) adibidean, aldiz, bigarren mailako predikatuak (*berotuta*) armiarme bakarrik egin diezaieke erreferentzia, ez balizko arazle implizituari. Horrek erakusten du subjektu gisa arazleak dituzten aditzak ez direla bateragarriak egitura inbertsonalarekin.


15 Berrikusle batek adierazi digun bezala, arazlea ager daiteke postposizio sintagma baten modura (e.g. *Armiarmak pozoiaz hiltzen dira*). Egitura hori, baina, ez da inbertsonala, ezpada inkoatiboa, hots, (37b)-ren kidekoa. Egitura inkoatiboan arazle PSk ager daitezke, 6. atalean erakutsi dugun bezala.

- (51) a. Liburu hau ulergarria da.
 b. Liburu hau erraz ulertzen da.

-*Garri* adjektibo potentzialetan egile implizitu bat dago, 4. atalean erakutsi dugun bezala. Gainera, Modu eta Adj buruen islapenari esker, irakurketa potentziala, generikoa eta pasiboa lortzen da. Inpertsonean ere hala da neurri batean: egilea implizitua da, eta *erraz* ereduko adverbio bat gaineratuz eta *-tzen* aspektu marka burutugabea erabiliz, irakurketa potentziala eta generikoa izan dezake. Horrela, (a) eta (b) bikoteek irakurketa nahikoa antzekoa lortzen dute.

Laburbilduz, egitura inpertsonalak *-garri* adjektiboetan agertzen diren subjektu motak bereizteko oso baliagarriak dira. Alde batetik, *-garri* aktiboetako aditzak eta arazleak ezin ager daitezke egitura inpertsonalean, arazle horiek gehien-gehienetan ez-bizidunak eta ondorioz, ez-gizakiak, direlako. Kontrara, *-garri* potentzialetako aditzak eta egileak, bai, ager daitezke inpertsonaletan, egileak Bozaren espezifikatzailean txertatzen baitira, eta hortaz, [+gizaki] izan daitezkeelako.

- (52) a. Inpertsonean aditz egiledunekin b. Inpertsonean ez aditz arazledunekin



8. -KOR ADJEKTIBOAK ETA EGILE/ARAZLE DESBERDINTASUNA

-*Garri* bezala, *-kor* atzizkia aditzetatik jite adjektiboak sortzen dituen atzizkia da (Euskaltzaindia, 2021; Gonzalvo, 2018; Oihartzabal, 2003a; Sánchez-Dorransoro, 2022; Zabala, 1999). Oinarrian hartzen dituen aditzak edo egiturak, baina, nahikoa desberdinak dira. Oro har, esan genezake *-korek* egitura iragangaitzak hartzen dituela oinarri. Egitura iragangaitza dute, noski, aditz inakusatiboek; esate baterako, *erori* aditzak (Oihartzabal, 2003a; Sánchez-Dorransoro, 2022).

- (53) a. Pago-hostoak erortzen dira.
 b. Pago-hostoak erorkorrak dira. (Sánchez-Dorransoro, 2022, 86. or.)

Inkoatibo/arazle alternantzia erakusten duten aditzak ere har ditzake oinarri *-kor* atzizkiak *-hautsi, galdu, sumindu* eta abar-, baina balio aktiboko *-garri* adjektiboetan ez bezala, *-kor* adjektiboa aldaera inkoatibotik eratortzen da. Atzizkiak barne argumentuaren rola xurgatzen du. Gatozen (54) eta (55) adibideetara. (54a) adibidean *sartu* aditzaren aldaera arazlea ikus daiteke, bi argumentu, hots, egilea eta gaia dituen. Hortik abiatzen den *-kor* adjektiboa ez da zilegi (54b). Kontrara, aldaera inkoatibotik (55a) abiatzen den *-kor* adjektiboa (55b) guztiz onargarria da (Oihartzabal, 2003a, 12. or.).

- (54) a. Tresna hauek erabiltzaileek aise sartzen dituzte behar den tokian.
 b. #Tresna sarkorrak dira.
- (55) a. Haren hitzak barna sartzen ziren gure baitan.
 b. Hitz sarkorrak dira.

Oihartzabalek (2003a) eta Sánchez-Dorronsorok (2022) bezala, guk ere uste dugu *-korek* barruan aditz egitura iragangaitza behar duela. Izan ere, *-garri* eta *-koren* arteko desberdintasuna ez da bakarrik lotzen adjektiboak xurgatzen duen rol tematikoarekin, argumentu kopuruarekin ere lotzen da. Aditzetatik eratoritzen diren *-garri* adjektiboetan aditzek bi argumentu daukate –egilea/esperimentatzailea eta gaia balio pasiboan, edo arazlea eta gaia balio aktiboan–. *-Kor* adjektiboetan, ordea, argumentu bakarra dago gehien-gehienetan (ikus 3. oin-oharra). Oihartzabalek (2003a) erakutsi zuen bezala (ikus, halaber, Sánchez-Dorronsorok, 2022), *-kor* adjektiborik ezin liteke sortu egitura inperetsonaletatik.

- (56) a. Sagarrak merke erosten dira.
 b. *Sagarrak eroskorak dira.

Fernándezek eta Berrok (2021), Berrok eta bestek (2022), eta Odria eta bestek (2022) aldarrikatu dute (56a) ereduko inperetsonaletan bi argumentu daudela semantikoki eta sintaktikoki indarrean –egilea eta gaia; alegia, erosle inplizitua eta sagarrak, hurrenez hurren–, nahiz eta morfologikoki bakarra azaleratzen den. Azaleratze morfologikoa, hortaz, ez dirudi garrantzitsua denik jite adjektiboen eraikuntzan. *-Kor* jite adjektiboetan argumentu sintaktiko eta semantikoak bakarra izan behar du. *Erosi* aditzak egile eta gai argumentuak behar ditu halabeharrez. *-Kor* adjektiboek, baina, argumentu bakarrentzat dute tokia eta, orain ikusiko dugun bezala, argumentu hori ezin da egilea izan.

-Kor adjektiboak argi bereizten dira *-garri* adjektibo potentzialetatik zein *-garri* aktiboetatik. 4.3 atalean esan bezala, *-garri* potentzialetan BozS islatzen da, eta Bozak egile inplizitua txertatzen du. *-Kor* adjektiboetan ez dago egile inpliziturik, (54b)-n eta (56b)-n erakutsi dugun bezalaxe. Egituran egile inplizitu bat badago, *-kor* adjektiboa ezin da eraiki. Egileekiko bateraezintasuna argumentu bakarreko aditzetan ere azaleratzen da. Oihartzabalek (2003a) eta Sánchez-Dorronsorok (2022) erakutsi duten bezala, *-kor* soilik barne argumentua ez-egile duten aditz iragangaitzekin lot daiteke. Oso argi ikusten dugu hori bi rol tematikoko barne argumentuak onartzen dituzten aditzekin; esate baterako, *joan*-ekin. *Joanek* barne argumentu egilea¹⁶ dauka

16 Berrikusle baten arabera, (57a)-ren eta (58a)-ren arteko bereizketa egile / gaia izaerekin baino gehiago, bizidun/bizigabe ezaugarriekin lotu daiteke. Egia da subjektua egilea izan dadin, biziduna izan behar duela halabeharrez, *joan* bezalako aditz inakusatibo batean ere bai. Hala ere, *-kor* adjektiboen banaketan biziduntasuna ez da ezaugarri erabakigarria; subjektu bizidunak dituen aditz askoren gainean eraikitzen dira *-kor* adjektiboak, esate baterako, *hilkor*, *haserrekor* eta *abazkor*. *-Kor* adjektiboen banaketan egiletasuna (edo hobeto esanda, egiletasun eza) da garrantzitsua.

Beste alde batetik, aditz inakusatibo borondatedunen subjektua egilea izan daitekeela lan askotan aintzat hartu da. Esate baterako, Ramchandek (2008, 78.-82. or.) ingelesezko *arrive* aditzen subjektua Abiatze (ingelesez *Initiation*) azpi-gertakari sintagmaren espezifikatzailean sartzen dela proposatu du. Horrela azaldu du, adibidez, horrelako aditzek aldaera arazlerik ez onartzea.

(57a) adibidean eta, ondorioz, ezin da eratorri *joankor* adjektiboa testuinguru horretan (57b). Barne argumentua gaia denean (58a), aldiz, *joankor* adjektiboa gramatika-la da (58b).

- (57) a. Haur hori beti norabait joaten da.
b. *Haur hori joankorra da.

- (58) a. Denbora aitzina doa.
b. Denbora eta dirua joankorrek dira.

(Oihartzabal, 2003a, 371. or.)

Berdin gertatzen da aditz inergatiboekin. Aditz inergatiboaren subjektu iragangaitza egilea denean, haren gaineko *-kor* adjektiboa ez da onargarria (59a, b). Egilea ez bada *-eta*, aldiz, iturburua (60) edo gaia (61) bada-, bai (Oihartzabal, 2003a; Sánchez-Dorrnsoro, 2022).

- (59) a. Leirek dantza egiten du.
b. *Leire dantzakorra da.


- (60) a. Izarrak distira egiten du.
b. Izarra distirakorra da.

- (61) a. Denborak ihes egiten du.
b. Denbora iheskorra da.

(Sánchez-Dorrnsoro, 2022, 87.-88. or.)

Gogora ekar ditzagun lan honetan plazaratu ditugu bi hipotesiak: (i) jite adjektiboek aSren espezifikatzailean (edo espezifikatzailek ezean, espezifikatzailetik hurbilen) dagoen argumentua erakarri egiten dute beren espezifikatzailean, eta (ii) egileak Bozaren geruzan txertatzen dira, arazleak berriz aSren espezifikatzailean. *-Kor* adjektiboen eratorpenaren argitan, aditz inakusatiboek eta inergatiboek duten banaketa oso interesgarria da, iradokitzen duelako aditz iragangaitzen argumentu bakarrak *-inakusatiboetan* zein inergatiboetan– bi buru sintaktikorekin duela lotura: egileak Bozarekin eta ez-egileak a-rekin. Banaketa horrek ez du nahitaz inergatibo eta inakusatibo banaketarekin bat etorri behar, (57)-(61) adibideetan erakutsi dugun bezala. Horrek, noski, aditz inakusatiboek eta inergatiboek analisia berrikustera behartuko gintuzke. Lan batzuek dagoeneko iradoki dute banaketa ez dela beti uste den bezain argia (Pineda & Berro, 2020; Ramchand, 2008).

Sánchez-Dorrnsorori jarraikiz (2022), *-kor* adjektiboek aS dutela proposatuko dugu; ez, ordea, BozS. *-Kor* adjektiboek adierazten duten erraztasun edo joera osagai hori Alexiadouk (2018) proposatutako hirugarren interpretazio modalarekin lot daiteke (Sánchez-Dorrnsoro, 2022). Alexiadouren (2018) arabera, jite adjektibo batzuek gertaera bat pairatzeko edo jasateko erraztasuna edo joera adierazten dute. Joerazkotasuna Modu funtzio buruan egongo litzateke txertaturik.

(62) *-Kor* adjektiboak

aS islatzen den neurrian, *-kor* adjektiboek gertaera bat adierazten dute. Gainera, aSren barruan gai argumentua islatzen denez, adjektiboak argumentu hori erakar lezake bere espezifikatzaileira. BozS islapenik ez dagoenez, *-kor* adjektiboetan ez dago egilerik. Ikusi dugunez, aditz inakusatiboak *-kor* adjektiboetan erabiltzen direnean, egile rola ezin da xurgatu, hori argumentu bakarra bada ere.

Hortaz, *-kor* adjektiboek aS dute beren hezurdura sintaktikoan, baina ez BozS. Ezau-garri horri dagokienez, *-garri* adjektibo aktiboekin bat egiten dute. Alabaina, *-garri* adjektiboetan bi argumentu semantiko daude: *-garri* aktiboaren kasuan, gaia –erroak osatzen duen PTan txertatua– eta arazlea, aSren espezifikatzaile gunean. Arazlea aSren espezifikatzailean dagoenez, *-garri* aktiboetan hori da, hain zuzen, adjektiboak erakartzeko duen argumentua. *-Kor* adjektiboetan, aldiz, argumentu bakarra dago aSren barruan (gaia, alegia) eta hori bera erakartzeko du adjektiboak.

Bestalde, *-kor* adjektiboetan BozS islatzen ez denez, ez dira onargarriak egile (inplizitu) bat eskatzen duten testuinguru sintaktikoetan. Ez dute onartzen egileari zuzendutako modifikatzailearik (62a), eta ezin dute helburu perpaus baten PRO argumentua gobernatu (62b). Alabaina, esperoko genukeenaren kontrara, *-kor* adjektiboek nekez onartzen dituzte gertaera aldatzen duten aspektu eta modu modifikatzaileak (62c, d, e).

- (62) a. *Edalontzia nahita / kontu handiz hauskorra da.
 b. *[PRO aseguruak kobratzeko] hauskorra.
 c. *Edalontzia ordu betean hauskorra da.
 d. ?Mendia apurka-apurka higakorra da.
 e. *Gizon hori azkar gizenkorra da.

Jokabide horri dagokionez, *-kor* adjektiboek eta *-garri* potentzialek desberdin jokatzen dute. Beharbada kontraste horrek modalitate desberdintasunarekin zerikusia izango du;

izan ere, *egingarri* ereduko adjektibo bat potentziala da eta *hauskor* eta *bigakor* ereduko bat, aldiz, joerazkoa. Dena den, oraindik argitzeke dago zergatik baldintzatzen duen modalitateak horrenbeste modifikazioa. Etorkizunean arakatu beharreko eremua da hori.

9. ONDORIOAK

Lan honetan *-garri* eta *-kor* atzizki eratorleen barruko sintaxia arakatu dugu. Euskarazko jite adjektiboen inguruko erreferentziazko lanetatik abiatuz adjektibo hauen eratorpena aztertu dugu teoria berrien argitan (Alexiadou, 2018; Oltra-Massuet, 2013). Adjektibook barruan hartzen dituzten aditzen argumentu egiturari eta subjektu motei erreparatu diegu.

Lan honetan bi hipotesi nagusi plazaratu ditugu: batetik, jite adjektibook aSren espezifikatzailean (edo espezifikatzailearik ezean, espezifikatzailetik hurbilen) dagoen argumentua erakartzen dute beren espezifikatzaileari; bigarrenik, egileak eta arazleak gune sintaktiko desberdinetan txertatzen dira (Alexiadou, 2014; Alexiadou & Anagnostopoulou, 2020; Alexiadou et al., 2006). Egileak aditzetik urrunago sartzen dira, aStik kanpo eta BozSren geruzan. Arazleak, berriz, aditzaren semantikari lotuago egonik, aS barruan txertatzen dira, zehazki, aSren espezifikatzailean. Lan honek eratorpen morfologian ere banaketa hori ikus daitekeela erakutsi du eta goian aipatutako lanek urrututako ildo horri ekarpena egin dio. Gainera, azaldu ahal izan dugu zergatik jite adjektiboetan arazleak eta gaiak –eta ez egileak– adjektiboen subjektuak izan daitezkeen.

Nolanahi ere den, egileen eta arazleen banaketa sintaktikoaren auzian bada oraindik zer aztertua. Esate baterako, [+gizaki] argumentu batzuek ez dute nahitaz egile izan behar, eta hori kontuan hartuta, aSren eta BozSren arteko lotura eta bakoitzak aditzaren eraikuntzan egiten duen ekarpen zehatza xeheago arakatu beharra dago. Egileen eta arazleen arteko banaketak, eta horrek aSrekin eta BozSrekin duen loturak, berebiziko garrantzia dute argumentu bakarreko aditzetan, hain zuzen, aditz inakusatibo eta inergatiboetan. Galdera asko daude oraindik erantzuteko. Ziur euskararen azterketak ekarpen esanguratsuak ekarriko dituela eztabaidara.

10. ERREFERENTZIAK

- Alexiadou, A. (2014). The problem with internally caused change-of-state verbs. *Linguistics*, 52(4), 879-910. <https://doi.org/10.1515/ling-2014-0011>
- Alexiadou, A. (2018). -Able adjectives and the syntax of psych verbs. *Glossa. A Journal of General Linguistics*, 3(1), 74. <https://doi.org/10.5334/gjgl.498>
- Alexiadou, A. & Anagnostopoulou, E. (2020). Experiencers and causation. In E. A. Bar-Asher Siegal & N. Boneh (arg.), *Perspectives on causation* (297.-317. or.). Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-030-34308-8_9
- Alexiadou, A., Anagnostopoulou, E. & Schäfer, F. (2006). The properties of anticausatives crosslinguistically. In M. Frascarely (arg.), *Phases of interpretation* (187.-211. or.). De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9783110197723.4.187>

- Alexiadou, A., Anagnostopoulou, E. & Schäfer, F. (2015). *External arguments in transitivity alternations: A layering approach*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199571949.001.0001>
- Alexiadou, A. & Iordăchioaia, G. (2014). The psych causative alternation. *Lingua*, 148, 53-79. <http://doi.org/10.1016/j.lingua.2014.05.010>
- Alexiadou, A. & Schäfer, F. (2006). Instrument subjects are agents or causers. In D. Baumer, D. Montero & M. Scanlon (arg.), *Proceedings of the 25th West Coast Conference on Formal Linguistics* (40.-48. or.). Cascadilla Press.
- Artiagoitia, X. (1995). «Garri» atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarria bezain mingarria. *ASJU*, 29(2), 355-405. <https://doi.org/10.1387/asju.8483>
- Artiagoitia, X. (2003). The case of an enlightening, provoking and admirable Basque derivational suffix with implications for the theory of argument structure. *ASJU*, 46, 147-183. <https://doi.org/10.1387/asju.9717>
- Azkarate, M. (1990). Euskal -garri vs. latinezko -bilis: bi balio desberdin. In E. Perez, P. Urkizu & M. Azkarate (arg.), *Patxi Altunari omenaldia* (19.-39. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- Azkue, R. M. (1925). *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera)*. Editorial Vasca.
- Belletti, A. & Rizzi, L. (1988). Psych-verbs and θ -theory. *Natural Language and Linguistic Theory*, 6(3), 291-352. <https://doi.org/10.1007/BF00133902>
- Berro, A. (2015). *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque* [Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta UBM-Université Bordeaux Montaigne]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/16077>
- Berro, A. (2019). Basque adjectival participles: Stative, resultative or experiential. *Glossa. A Journal of General Linguistics*, 4(1), 66. <https://doi.org/10.5334/gjgl.730>
- Berro, A. & Fernández, B. (2019). Applicatives without verbs. *Natural Language and Linguistic Theory*, 37(4), 1273-1317. <https://doi.org/10.1007/s11049-018-09437-4>
- Berro, A. & Fernández, B. (2022). *Voice and argument structure in Basque* [Eskuizkribua]. Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU.
- Berro, A., Odria, A. & Fernández, B. (2022). Person matters in impersonality. *Syntax*, 25(2), 147-187. <https://doi.org/10.1111/synt.12230>
- Berro, A., Oihartzabal, B. & Fernández, B. (2018). Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratortzen. *Fontes Linguae Vasconum*, 126, 365-388. <https://doi.org/10.35462/FLV126.4>
- Bhatt, R. & Pancheva, R. (2005). Implicit arguments. In M. Everaert & H. C. van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax* (554.-584. or.). Blackwell.
- Bruening, B. (2014). Word formation is syntactic: Adjectival passives in English. *Natural Language and Linguistic Theory*, 32(2), 363-422. <https://doi.org/10.1007/s11049-014-9227-y>
- Chomsky, N. (1986). *Barriers*. MIT Press.
- Copley, B. & Harley, H. (2015). A force-theoretic framework for event structure. *Linguistics and Philosophy*, 38(2), 103-158. <https://doi.org/10.1007/s10988-015-9168-x>

- Embick, D. (2004). On the structure of resultative participles in English. *Linguistic Inquiry*, 35(3), 355-392. <https://doi.org/10.1162/0024389041402634>
- Etxepare, R. (2003). Valency and argument structure in the Basque verb. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (363.-425. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.363>
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskararen gramatika. I. liburukia*. Euskaltzaindia.
- Fabb, N. A. J. (1984). *Syntactic affixation* [Doktore-tesia, Massachusetts Institute of Technology]. Massachusetts Institute of Technology. <http://www.ai.mit.edu/projects/dm/theses/fabb84.pdf>
- Fábregas, A. & Scalise, S. (2012). *Morphology: from data to theories*. Edinburgh University Press.
- Fernández, B. & Berro, A. (2021). Basque impersonals in comparison. *Linguistics*, 60(4), 1039-1101. <https://doi.org/10.1515/ling-2020-0057>
- Fernández, B. & Ortiz de Urbina, J. (2010). *Datiboa hiztegian*. UPV/EHU.
- Fernández, B., Zúñiga, F. & Berro, A. (2020). Datives with psych nouns and adjectives in Basque. *Folia Linguistica*, 54(3), 647-696. <https://doi.org/10.1515/flin-2020-2050>
- Gonzalvo, L. (2018). -Kor atzizkiaren aurean baikor: -kor atzizkiaren azterketa [Gradu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/30100>
- Gràcia, Ll., Cabré, M. T., Varela, S., Azkarate, M., Lorente, M., Odriozola, J. C., Zabala, I., Perez Gaztelu, E., Fullana, O., Turon, L., Suñer, A., Bayà, R., Haouet, L. & Martín J. (1995). *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. UPV/EHU.
- Harley, H. (2005). How do verbs get their names? Denominal verbs, manner incorporation, and the ontology of verb roots in English. In N. Erteschik-Shir & T. Rapoport (arg.), *The syntax of aspect: Deriving thematic and aspectual interpretation* (42.-64. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199280445.003.0003>
- Juaristi, F. (2003). *Airezko emakumeak*. Erein.
- Kayne, R. S. (1981). Unambiguous paths. In R. May & K. Koster (arg.), *Levels of syntactic representation* (143.-183. or.). Foris Publications.
- Kayne, R. S. (1984). *Connectedness and binary branching*. Foris Publications.
- Kayser, S. J. & Roeper, T. (1984). On the middle and ergative constructions in English. *Linguistic Inquiry*, 15(3), 381-416.
- Kratzer, A. (1994). *The event argument and the semantics of voice* [Eskuizkribua]. University of Massachusetts.
- Kratzer, A. (1996). Severing the external argument from its verb. In J. Rooryck & L. Zaring (arg.), *Phrase structure and the lexicon* (109.-137. or.). Springer. https://doi.org/10.1007/978-94-015-8617-7_5
- Levin, B. & Rappaport Hovav, M. (1995). *Unaccusativity: At the syntax-lexical semantics interface*. MIT Press.
- Levin, B. & Rappaport Hovav, M. (2005). *Argument realization*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511610479>
- McKoon, G. & Macfarland, T. (2000). Externally and internally caused change of state verbs. *Language*, 76(4), 833-858. <https://doi.org/10.2307/417201>

- Mendiguren, I. (2000). *A. Toynbee. Historiaren azterketa*. UPV/EHU.
- Moreira, B. E. C. (2014). Two types of dispositional adjectives. *ReVel*, 12(8), 186-196.
- Nevins, A. (2002). One *-able*, two attachment sites [Eskuizkribua]. MIT.
- Odria, A., Berro, A. & Fernández, B. (2022). Pertsona murriztapenak ditu egitura in-pertsonalak: euskararen kasua. *Fontes Linguae Vasconum*, 133, 191-219. <https://doi.org/10.35462/flv133.7k>
- Oihartzabal, B. (2003a). Kor atzizkiaz. In J. M. Makatzaga & B. Oihartzabal (arg.), *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian* (357.-383. or.). Euskaltzaindia.
- Oihartzabal, B. (2003b). Lexical causatives and causative alternation in Basque. In B. Oihartzabal (arg.), *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque* (223.-253. or.). UPV/EHU.
- Oltra-Massuet, I. (2013). *Deverbal adjectives at the interface: a crosslinguistic investigation into the morphology, syntax and semantics of -ble*. De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9781614510659>
- Pesetsky, D. (1995). *Zero syntax*. MIT Press.
- Pylkkänen, L. (2008). *Introducing arguments*. MIT Press.
- Pineda, A. & Berro, A. (2020). Hybrid intransitives in Basque. *Glossa. A Journal of General Linguistics*, 5(1), 22. <https://doi.org/10.5334/gjgl.824>
- Ramchand, G. (2008). *Verb meaning and the lexicon. A first phase syntax*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511486319>
- Roeper, T. (1987). Implicit arguments and the head-complement relation. *Linguistic Inquiry*, 18(2), 267-310.
- Sánchez-Dorransoro, L. (2022). *Dispositional adjectives across languages: the frontier between syntax, morphology and semantics* [Gradu amaierako lana, argitaratu gabea]. Deustuko Unibertsitatea.
- Sánchez-Dorransoro, L., Fernández, B. & Berro, A. (2022). *Jite adjektiboak eta aditz psikologikoak euskaraz* [Eskuizkribua]. Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU.
- Sarasola, I. (2008). *Egungo euskararen hiztegia*. UPV/EHU.
- Schäfer, F. (2012). Two types of external argument licensing. The case of causers. *Studia Linguistica*, 66(2), 128-180. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9582.2012.01192.x>
- Villasante, L. (1974). *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Franciscana Aranzazu.
- Wood, J. (2012). *Icelandic morphosyntax and argument structure* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. NYU-New York University.
- Wood, J. (2015). *Icelandic morphosyntax and argument structure*. Springer. <https://doi.org/10.1007/978-3-319-09138-9>
- Wright, S. (2001). *Internally caused and externally caused change of state verbs* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Northwestern University.
- Wright, S. (2002). Transitivity and change of state verbs. *Proceedings of the Annual Meeting of the Berkeley Linguistic Society*, 28(1), 339-350. <https://doi.org/10.3765/bls.v28i1.3849>
- Zabala, I. (1999). Zehaztasuna eta gardentasuna. In J. C. Odriozola (arg.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan* (159.-188. or.). UPV/EHU.

